

Euskara teknikarien feminizazio-maila datuen argitan



Lan honen bibliografia-erregistro bat Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sareko katalogoan kontsulta daiteke:
www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

Argitaraldia: 1.a, 20224ko urria

Ale kopurua: 110 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus/argitalpenak

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Egilea: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Inprimaketa: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

ISBN: 978-84-457-3797-2

Lege gordailua: LG G 667-2024

Euskara teknikarien feminizazio-maila datuen argitan

Egilea: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila



Vitoria-Gasteiz, 2024

AURKIBIDEA

▪ AZTERKETAREN NONDIK NORAKOA	3
▪ METODOLOGIA ETA PROZESUA	7
▪ DATUEN SENDOTASUN-MAILA	10
▪ EUSKARA TEKNIKARIEN FEMINIZAZIO-MAILA OROKORRA	15
▪ SEGREGAZIO BERTIKALA	25
▪ LANPOSTUEN KOKAPENA ERAKUNDEEN HIERARKIAN (AITORTZA FORMALA ETA SOLDATA)	32
▪ EUSKARA TEKNIKARIEN SOSLAIA	47
▪ ONDORIOAK ETA ARAKATZEN JARRAITZEKO IDEIAK	54

1 AZTERKETAREN NONDIK NORAKOAK

1.1. Azterketaren testuingurua

Nazioartean literatura eta ikerketa ugari sortu izan da hizkuntza eta generoaren arteko harremanaren inguruan. 1975. urtea hartzen da soziolinguistika feministaren sorrera urte bezala Robin Tolmach Lakoffen “Language and woman’s place” lanari lotuta. Orduz geroztik, eztabaida eta ekarpen ugari sortu izan dira sexu-genero sistemak hizkuntza-praktiketan duen eraginaren inguruan eta 80ko hamarkadatik aurrera bide oparoa egin da.

Euskal Herrira beranduago iritsi zen begirada hau. 80 eta 90eko hamarkadetan ekarpen eta gogoeta batzuk sortu ziren, nahiko modu bakanean. Horietako hiru nabarmendu ditzakegu:

- 1 80ko hamarkada, Teresa del Valle antropologoak euskararen biziberritzean emakumeen ekarpena eta paperaren inguruan ikertu zuen.
- 2 1995, Kike Amonarrizek “Euskararen erabileraren feminizazioa” artikulua argitaratu zuen. Gipuzkoako udalerrri hiritartuetan emakumeek gizonak baino euskara gehiago egiten dutela nabarmendu zuen; batez ere gazteen artean. Horrekin batera, helduen euskalduntze-prozesuetan ere emakumeen nagusitasunari erreparatzen dio eta euskararen erabilera feminizazio-prozesu batean sartu dela esaten du.
- 3 2002, SL Klusterra eta Jone Miren Hernandez antropologoak euskararen kale-erabileraren neurketan datuak sexua-generoaren arabera bereizten hasi eta genero-ikuspegia txertatzen zuen lehenengo irakurketak egin zituzten. Adin-tarte eta lurralde guztietan emakumeek euskara gehiago erabiltzen zutela ikusi zuten, bi salbuespenekin: adinekoak eta Ipar Euskal Herria.

Hizkuntza eta generoaren arteko gurutzaketaren inguruko gogoetak **2010eko hamarkadan loratu ziren Euskal Herrian**. Loraldi honek hainbat **ezaugarri** izan ditu:

- Nazioartean hizkuntzen erabileran generoak daukan eragina aztertu izan da, baina ez da bereziki aztertu zer gertatzen den hizkuntza gutxituekin. Hizkuntza hegemonikoei begiratu diete nagusiki. **Hizkuntza eta generoaren arteko harremana Euskal Herrira ekartzean, euskara eta generoaren arteko harremanean jarri da arreta** berezia; mundu-mailan ez dira asko hizkuntza gutxiagotuen eta generoaren arteko harremanaz egindako ikerketak eta ekarpenak. Euskal Herrian hasitako bide honek, beraz, badu berritasun garrantzitsu bat: **ekarpen lokalizatuak, geure errealitatearekin oso lotuak eta euskararen biziberritzearekin konprometituak** izan direla esan genezake.
- Loraldi honetan, gogoeta, hitzaldi eta jardunaldi sorta bat egon da. Euskararen biziberritzean eta feminismoan metatutako ezagutzak bien arteko loturak sumatu eta ikusteko aukera eman digu eta ezagutza horretatik hipotesi interesgarriak mahaigaineratu dira. Hipotesi horiek kontrastatu eta berretsi nahiz birformulatzeko ez da **ikerketarik askorik egin**, ordea. Euskararen biziberritzeak eta generoak dituzten harremanen inguruko ezagutzan sakontzeko **beharrezkoa dugu orain arte sortutako hipotesi eta literaturari ikerketaren osagaia gehitzea**.
- Euskal Herrian, euskara eta generoaren arteko harremanaren inguruko ekarpenen loraldia bat etorri da feminismoaren loraldiarekin. Eta **feminismoak kontzeptu berriak**

ekarri dizkigu, euskararen biziberritzea hobeto ulertzen lagun diezaguketenak eta, ondorioz, euskara biziberritzeko politikak pentsatzeko eta indartzeko baliagarriak izan daitezkeenak; besteak beste:

Zaintzaren feminizazioa

Zaintza-lanak emakumeen lan gisa ulertzen dira eta emakumeen esku uzten dira. Txiki-txikitik hezten dira emakume gisa sailkatutako pertsonak horretarako: emakumeen sozializazio-prozesua zaintzaile izateko heziketa prozesu bat da; besteak beste, besteentzako bizi diren pertsonak izan daitezten. Zaintza-lanak emakumeen lan gisa ulertzeaz gainera, gutxietsi egiten dira, alegia, ez zaie balio sozial eta ekonomikorik aitortzen (edo oso txikia). Horri guztiari lotuta, euskara zaindu beharreko zerbait gisa aurkezteak hainbat ondorio ekar ditzake: feminizazioa (nork zainduko du emakumeak ez bada?), balio sozial gutxi aitortzea, etab.

Sektore feminizatuen prekarizazioa

Nagusiki emakumeek egiten dituzten zereginen estatus, prestigio eta aitortza txikiagoa jaso ohi dute; balio gutxi ematen zaion lanak emakumeen esku geratu ohi dira. Gure gaira ekarrita, euskara emakumeen kontua bada, interesgarria izango da aztertzea horrek zer gehiago esaten digun; besteak beste, feminizazio-prozesu horrek ba ote daukan nolabaiteko harremanik euskararen minorizazio-prozesuarekin eta euskarari ematen zaion balio eta esanahi sozialarekin.

Interseksionalitatea

Sexu-generoarenaz gain, emakumeek gizartean duten posizioan beste menderakuntza batzuek ere eragiten dute; hala nola, arrazak, jatorriak, adinak, klaseak, orientazio sexualak, genero-identitateak, dibertsitate funtzionalak, etab. Ezin esan daiteke menderakuntza bat bestea baino garrantzitsuagoa edo erabakigarriagoa denik, denak elkar lotzen baitira; gizartean norberak duen posizioa horien guztiaren emaitza da. Egoera bakoitzaren arabera aztertu behar da zeintzuk diren gizarte, lantoki edo leku jakin bakoitzean gehien baldintzatzen duten ezaugarriak. Euskal Herrian interseksionalitatean aipatzen diren menderakuntzei edo aldagaiei **hizkuntza gutxiagotuarena gehitu** zaio, baldintza hau ere mahai gainean jarritz. Horrez gain, **eraldaketa-prozesuak elkarlotuta pentsatu eta egin** behar ditugula nabarmentzen du ikuspegi honek, menderakuntzak elkarlotuta gorpuzten zaizkigun neurrian.

Lehenago esan bezala, Euskal Herriatik kanpo egiten ari ziren gogoeta eta ikerketei berandu begiratu badiegu ere, azken urteotan hizkuntza eta generoaren gurutzaketaren inguruko **praktika eta ezagutza propio bat garatu da**, gure errealitatek abiatuta. Hizkuntza eta generoaren gurutzaketari euskaratik begiratu diogu eta hizkuntza gutxiagotu baten (euskararen) eta generoaren arteko gurutzaketan sakondu dugu. **Nagusiki hiru eremuri erreparatu** diegu:

- 1 Errealitate soziolinguistikoan generoaren eragina. Nola eragiten du generoak gure hizkuntza-praktiketan?
- 2 Euskara biziberritzeko prozesuan emakumeen eta gizonen papera.
- 3 Euskalgintza eta feminismoaren arteko elkarguneak, ikaspenak eta aliantzarako aukerak.

Emakume/gizon eta euskaldun identitateak nola eraiki eta deseraikitzen diren ere gogoeta gai izan da, nahiz eta askoz neurri txikiagoan.

Esku artean duzun **azterketa honek** bigarren eremuan jartzen du **begirada**:

**Euskara biziberritzeko prozesuan emakumeen eta gizonen papera. Genero-
rolek eragina dute euskara biziberritzeko prozesuan hartzen ari garen roletan?
Eta, alderantziz, euskarak daukan lekuak eta ematen dizkiogun esanahiek
genero bat edo beste bat interpelatzeko dute? Euskararen minorizazio-prozesua
eta feminizazio-prozesua eskutik doaz?**

Zehazki, euskara biziberritzeko lanetan nortzuk ari diren aztertu nahi izan dugu, kasu honetan, erakunde publikoetan (euskara teknikarien eta hizkuntza-normalizatzaileen feminizazio-maila) datuak bildu eta aztertu; euskara teknikarien feminizazio-maila zenbaterainokoa den eta nola gorpuzten den ezagutzen hasteko.

1.2. Zer aztertu dugu?

1

Euskara teknikarien feminizazio-maila. Euskararen biziberritzearen hainbat eremutan feminizazio-prozesuen zantzuak antzematen dira (euskararen erabileran, euskara biziberritzeko ekimenetan...). Politika publikoetan, euskara biziberritzeko lanen ardura duten euskara teknikariek antzeko zerbait geratzen al da? Zenbateraino hitz egin dezakegu euskara teknikarien feminizazioaz? Nortzuk ari dira euskara biziberritzeko lanetan erakunde publikoetan? Emakume eta gizonen partaidetza parekoa da edo badago feminizazio-prozesu bat? Non eta nola daude emakumeak eta gizonak? Eta non ez daude? Euskararen biziberritzearen hainbat esparrutan bezalaxe, euskararen feminizazioa euskara teknikarietan ere errealitate bat da?

2

Datu orokorrez harago, nola gorpuzten da euskara teknikarien feminizazioa? Zer forma hartzen du? Euskara-zerbitzuen tripak arakatu ditugu: segregazio bertikala (ardura-mailaren arabera, nolakoa den emakume eta gizonen presentzia), emakumeek eta gizonek betetzen dituzten lanpostuen estatusa eta aitortza (lanpostuen kategoria eta mailatan arreta jarrita, batez ere), erakunde-motaren arabera ezberdintasunik badagoen eta emakume eta gizonen lan-baldintzak.

3

Euskara teknikarien soslaia, genero-ikuspegitik.

Azterlan hau datu kuantitatiboetan oinarritu dugu. Orain arte ez zegoen galdera hauen inguruko daturik eta lehentasuna eman diogu datu horiek bildu eta aztertzeari. Edonola ere, datuok aztertzerakoan errealitate horren atzean dauden faktoreen inguruko galderak sortu zaizkigu etengabe eta interesgarria litzateke galdera horietan arakatzeko azterlan gehiago egiten jarraitzea, datu gehiago bilduz eta alderdi kualitatiboari ere lekua eginez.

2 METODOLOGIA ETA URRATSAK



2.1. Urratsen azalpena

Datu-bilketa irudikatu:

Hasteko, azterketa egin ahal izateko beharrezko datuak identifikatu eta horiek biltzeko tresna sortu dugu.

EUSKARA SAILA EDO ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK			
DATU OROKORRAK	Erakundea:		Besterik:
	Lurraldea:		
	Herria / Saila:		
	Udalerriko biztanle-kopurua (udalen kasuan):		
EUSKARA SAILA EDO ZERBITZUAREN INGURUKO INFORMAZIOA	Euskara-saileko/zerbitzuko langile-kopurua:	1	
	Euskara-teknikari edo hizkuntza-normalizatzaileen kopurua:	1	
	Administrari-kopurua:		
	Itzultzaile-kopurua:		
	Trebatzaile-kopurua:		
	Beste lanposturen bat:		Izendatu:
	Bada euskara-sail/zerbitzurik?		
	Euskarak beste arlo batekin batera osatzen du saila/zerbitzua?		Izendatu:
	Edo euskara beste sail/zerbitzua baten menpe dago?		Izendatu:

DATUAK TEKNIKARIZ TEKNIKARI													
	Teknikari-mota	Euskara-teknikaria edo hizkuntza normalizatzailea ez den kasuetan, egiten du inoiz hizkuntza-normalakuntzarekin lotutako lanik?	Lanpostu zehatza. Nola izendatzen da?	Teknikariaren sexua-generoa	Ardura-maila	Lanpostuaren kategoria	Lanpostuaren maila	Teknikariaren adina	Antzintasuna (euskara teknikari gisa)	Antzintasuna (administrazioan)	Kontratu-mota	Lanpostuan sarbidea lortzeko ikasketak	Lanaldia
1													
2													
3													
4													
5													
6													
7													

Euskara-zerbitzuei eskatutako informazioak atal hauek ditu eta zerbitzuburuari eskatu diogu osatzeko:

- Zerbitzuari buruzko datuak: lurraldea, izaera, langile-kopurua (euskara teknikaria, itzultzailea, administraria, besterik), zerbitzurik dagoen, ezaugarriak.
- Teknikariei buruzko datuak: teknikari-mota, izendapena, ardura-maila, kategoria, maila, adina, antzintasuna, sexua-generoa, kontratu-mota, ikasketak eta lanaldia.

Unibertsoa:

Orain arte esan bezala, erakunde publikoetan zentratu dugu azterlana, hots, erakunde publikoetako euskara-zerbitzuak izan dira azterlanaren jomuga.

Erakunde hauetako datuak bildu eta aztertu ditugu: Eusko Jaurlaritza, aldundiak, Osakidetza, UEMA eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalak. Euskara-zerbitzuak mankomunitatuta dituzten udalerrien kasuan, mankomunitateko eta kuadrilletako datuak bildu ditugu.

Azterlana aurkeztu:

Azterlanak barne hartzen dituen erakunde publikoetako euskara-zerbitzuekin elkartu gara azterlana aurkeztu eta bildu beharreko informazioa azaltzeko. Euskara-zerbitzuen kolaborazioa ezinbestekoa izan da beraien datuak bildu eta eskuratzeko.

Azterlana aurkezteko bilera hauek egin ditugu:

1. Arabako Foru Aldundiko euskara-zerbitzua
2. Bizkaiko Foru Aldundiko euskara-zerbitzua
3. Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara-zerbitzua
4. Donostiako, Bilboko eta Gasteizko euskara-zerbitzuak
5. UEMA
6. Alkarbide (Bizkaiko Teknikarien Sarea)
7. Udalekin (Gipuzkoako Teknikarien Sarea)
8. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Hizkuntza Plangintzako zuzendaritza
9. Osakidetza Euskara-zerbitzua

Datuak bildu:

Ondoren, datuak biltzeko lanei heldu diegu. Esan beharra dago azterketa honen alderdirik lantsuena eta denbora gehien eskatu diguna haxe izan dela.

Aurkezpen-bilera horien ondoren, jarraipen estua egin diegu euskara-zerbitzuetatik eskuratzen genituen eta ez genituen datuei eta behar izan den guztietan, zuzeneko harremanak izan ditugu euskara-zerbitzuekin, bai eskuratzen ez genituen datuak eskuratzeko, bai koherenteak ez ziren datuak kontrastatzeko. Beraz, asko izan dira datuak osatzeko egin behar izan ditugun telefono-deiak eta harremanak.

3 DATUEN SENDOTASUN-MAILA

Ikerlanari begira, garrantzitsua da datuen sendotasun-maila zein den jakitea, hau da, jarraian aztertuko ditugun datuek unibertso osoa ordezkatzen duten edo datuen zein lagin daukagun jakitea.

Beheko taulan laburbildu dugu informaziorik esanguratsuena:

	Unibertsoa	Unibertsoa: bildutako datuak	Oharrak
Eusko Jaurjaritza	HPSko teknikariak eta sailetako normalkuntza-teknikariak	% 100	Faltan: teknikarien antzintasuna eta ikasketak
Osakidetza	Euskara-zerbitzuetako lanpostu guztiak (zuzendaritza nagusia, ESLak eta bestelakoak)	% 100	
UEMA	UEMan lan egiten duten langile guztiak	% 100	
Foru Aldundiak	Araba, Bizkai eta Gipuzkoako euskara-zerbitzuetako langile guztiak	% 100	
Hiriburuak	Euskara-zerbitzuetako langile guztiak	% 100	Faltan: <ul style="list-style-type: none"> Bilboko Udala: antzintasuna eta ikasketak Gasteizko Udala: ikasketak
Udalak, mankomunitateak eta kuadrillak	Euskara-zerbitzuetako langile guztiak	% 71* Gipuzkoa: % 81 Araba: % 80 Bizkaia: % 59	251 udaletatik 174ren datuak eskuratu ditugu (% 71), hiriburuak kontuan hartu gabe.

Tokiko erakundeei dagokienez (udalak, mankomunitateak eta kuadrillak), lurraldearen arabera datuen sendotasun-maila nabarmen da ezberdina (ikus taula).

- ✓ **Gipuzkoako udaletako euskara-zerbitzu gehienak datuak** bildu ditugu (daturik ez dugun udal gehienak 2.500 biztanletik beherakoak dira eta horiek, oro har, ez dute euskara-zerbitzurik)
- ✓ **Arabako udal eta kuadrilla gehienak datuak** bildu ditugu.
- ✓ **Bizkaian dugu hutsunerik handiena**, ez baitugu lortu udal ertain-handi batzuen datuak biltzerik (Barakaldo, Bermeo, Durango, Ermua, Galdakao, Gernika, Leioa eta Sopela).

Oro har, jasotzeke geratu zaizkigun udal gehienak 2.500 biztanletik beherakoak dira (falta zaizkigun 73 udaletatik 51 dira); eta tamaina horretako udalek, gehienetan, ez dute euskara-zerbitzurik izaten. **Udalerrri txiki horiek alde batera utziz gero, tokiko erakunde gehienak datuak ditugula esan dezakegu (erakundeen % 78).**

3.1. EAE mailako erakundeak

Atal honetan, hiru erakundetako datuak jaso ditugu:

- Eusko Jaurlaritzak. Hizkuntza-normalkuntzako teknikarien informazioa jaso dugu Hizkuntza Plangintzako zuzendaritzaren bidez. Datu batzuk osatu gabe jaso ditugu (antzinatasuna eta ikasketa-mailak).
- Osakidetza. Euskara-zerbitzuetako (zuzendaritza nagusia, ESlak, bestelakoak) lanpostu guztietako informazioa jaso dugu.
- UEMA. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean lan egiten duten langile guztien datuak jaso ditugu.

3.2 Foru aldundiak

Hiru foru aldundietako ordezkariekin egin ditugu bilerak ikerlana aurkeztu eta datuak nola jaso azaltzeko. Hiru kasuetan, euskara-zerbitzuetako langile guztien datuak jaso ditugu.

3.3. Hiriburuak

EAEko hiru hiriburuetako informazioa jaso dugu maila ezberdinean:

- Bilbo: antzinatasuna eta ikasketa-motari dagozkion datu batzuk falta dira.
- Donostia: datu guztiak jaso ditugu.
- Gasteiz: ikasketa-motari dagokion informazioa falta da.

3.4. Tokiko erakundeak (hiriburuak salbu)


Atal honetan jaso dugu udal, mankomunitate eta kuadrilletako euskara-zerbitzuetako informazioa. Datuak jasotzeko orduan, atal hau izan da gehien kostatzen dena.

EUDELEk bere webgunean argitaratuta duen informazioaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoan 251 udal daude eta 174ren datuak jaso ditugu (hiriburuak aintzat hartu barik). Kasu gehienetan informazio nahiko osatua jaso dugu.

Bizkaia eta Arabako kasuan, kuadrilla eta euskara-zerbitzuen mankomunitate gehienek informazioa jaso dugu (Arabako kuadrilla bat faltan eta Bizkaian euskara-zerbitzua duen mankomunitate bat). Kasu horietan, banaka kontatu ditugu udalak.


Ordezkatutako udal-kopurua biztanle-kopuruaren arabera:

	Udalak (euskara- zerbitzua dute)	UEMA	Kuadrilla (zerbitzua ematen dien udal- kopurua)	Mankom. (zerbitzua ematen dien udal- kopurua)	Informaziorik ez	Guztira
<2500	5	58	32	7	51	153
>10000	23	5	4	9	13	54
>30000	26				7	33
>30001	9				2	11
Guztira	63	63	36	16	73	251



Ordezkatutako udal-kopurua tamainaren eta herrialdearen arabera:

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira					
	bai	ez	bai	ez	bai	ez	bai	ez				
<2500	% 79	34	9	% 53	33	29	% 73	35	13	% 67	102	51
>10000	% 80	4	1	% 73	22	8	% 79	15	4	% 76	41	13
>30000	% 100	2	0	% 46	6	7	% 100	18	0	% 79	26	7
>30001	% 100	1	0	% 71	5	2	% 100	3	0	% 82	9	2
Guztira	% 80	41	10	% 59	66	46	% 81	71	17	% 71	178	73



Araban, kuadrilla bateko datuak falta dira. Bizkaian, mankomunitate bateko datuak eta 9 udalerrri ertain handitako datuak ez ditugu jaso. Horretaz, gain, Bizkaian, udal txiki askok ez dute zerbitzurik. Gipuzkoan udal txikietako batzuk falta dira, baina udal txiki gehienek ez dute euskara-zerbitzu edo teknikari propiorik.

Laburbilduz, EAEko udalen % 71 ordezkaturata dago ikerlan honetan. Gainera, kontuan hartu behar dugu, falta diren 73 udaletatik 51 udal 2.500 biztanletik beherakoak direla eta tamaina horretako udalek, gehienetan, ez dutela izaten euskara-zerbitzu edota teknikaririk. 2.500 biztanletik behera dituzten udalerrriak alde batera utzita, EAEko 10 udalerritatik ia zortzi udalerriren datuak jaso ditugu (% 78).

3.5 Toki-entitateen bidez ordezkaturako biztanle-kopurua (hiriburuak barne)

Tokiko erakundeei dagokienez, biztanle-kopuruaren arabera ere aztertu nahi izan dugu jasotako informazioa. EUDEL-en azken datuen arabera, EAEn 2.196.745 biztanle daude.

Ordezkatutako biztanle-kopurua tamainaren eta herrialdearen arabera:

	Udalak		UEMA		Kuadrilla		Mankom.		Informaziorik ez		GUZTIRA
<2500	7.374	6%	53.256	41%	25.987	22%	8.614	7%	35.926	27%	131.157
>10000	144.924	50%	20.549	7%	14.876	5%	46.016	16%	62.967	22%	289.332
>30000	429.691	76%	-	0%	-	0%	-	0%	134.035	24%	563.726
>30001	1.081.492	89%	-	0%	-	0%	-	0%	131.038	11%	1.212.530
GUZTIRA	1.663.481	74%	73.805	3%	40.863	2%	54.630	2%	363.966	17%	2.196.745

Hortaz, biztanleen % 83 ordezkaturata dago.

Hala ere, herrialdeen arabera, aldeak daude:

ordezkaturako biztanleak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
<2500	% 78	% 60	% 81	% 73
>10000	% 80	% 76	% 82	% 78
>30000	% 0	% 45	% 100	% 76
>30001	% 100	% 81	% 100	% 89
GUZTIRA	% 97	% 71	% 96	% 83

Esan dezakegu Arabako eta Gipuzkoako euskara teknikari edo hizkuntza-normalkuntzako ia teknikari guztien datuak jaso ditugula. Bizkaian dugu hutsunerik handiena, 10.000-30.000 biztanle arteko udalerrietan¹.

¹ Bizkaiko udalerrri handi hauetako informazioa falta da: Barakaldo, Bermeo, Durango, Ermua, Galdakao, Gernika, Leioa eta Sopela.

4 EUSKARA TEKNIKARIEN FEMINIZAZIO-MAILA OROKORRA

Euskararen biziberritzearen hainbat eremutan feminizazio-prozesuen zantzuak ikusten dira azken urteotan (erabileran, euskara biziberritzeko ekimenetan...). Politika publikoetan euskara biziberritzeko lanen ardura duten euskara teknikariek antzeko zerbait gertatzen den aztertu nahi izan dugu, hots, erakunde publikoetako euskara-zerbitzuak eta teknikariak ere feminizatutako eremua diren aztertu, nolabait, horrek izan ditzakeen esanahiekin batera.

Noiz esan dezakegu esparru bat feminizatua dela?

Ez dago irizpide argirik eta erabatekorik. % 40-60 kopuruetan mugitzen garenean, egoera parekide bat dela kontsideratzen da legeen ikuspegitik. Kopuru horietatik kanpo, egoera desorekatua dela esan nahiko luke; esparru feminizatu edo maskulinizatu % 65etik gorako kasuetan hitz egin ohi da, nagusiki. EAEko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoetako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Lehenengo Planean, esaterako, emakumeen presentzia % 64,3tik gorakoa denean esparru feminizatu gisa identifikatzen dute eta % 69tik gora oso feminizatu gisa.

Halere, agian ez da hain garrantzitsua etiketa bat edo bestea jartzea. Euskara teknikarien esparruan emakumeen eta gizonen presentziak eta absentiak identifikatu eta ulertu nahiko genituzke; euskararen biziberritzean genero-desberdinkeriak identifikatu eta gainditu ahal izateko, eta, prozesu honetan emakume nahiz gizonak inplikatzeko.



EUSKARA-TEKNIKARIEN FEMINIZAZIO-MAILA OROKORRA

DATURIK ESANGURATSUENAK, LABURBILDUTA:

Euskara-teknikarien ia bi heren emakumeak dira (% 64,2) eta heren bat baino gehixeago gizonak (% 35,8). Emakumeak nabarmen gehiago dira, beraz, eremu honetan.

Euskara-teknikarien erdia (% 48,5) tokiko erakundeetan dago, hau da, udal, mankomunitate eta kuadrilletako euskara-zerbitzuetan. **Horietan, euskara-teknikarien feminizazio-maila % 66,4koa da**; datu orokorraren nahiko antzekoa (bi puntu handiagoa tokiko erakundeetan).

Erakunde-motaren arabera ezberdintasunik antzematen dugu?

Ikusi dugun bezala, **udaletan euskara-teknikarien ofizioa feminizatuta** dago, neurri esanguratsu batean, emakumeak baitira teknikarien % 66,4. **Joera hau are nabarmenagoa da UEMAren kasuan**; arreta ematen du bere feminizazio-mailak, gainerako erakundeekiko oso handia delako (emakumeak dira teknikarien % 93).

Udalerriz gaindiko bi erakunde handietan, ordea, Eusko Jaurlaritzan eta Aldundietan, bestelakoa da egoera. Erakunde hauetan nabarmen handiagoa da gizonen presentzia, gainerako erakundeekin alderatuz gero, eta kopuru orekatuagoekin aurkitu gara. Euskara-teknikarien laurdena (% 26) Eusko Jaurlaritzan dago eta, bertan, emakumeak % 57 dira eta gizonak % 43. Aldundietan, berriz, parekoa da emakume eta gizonen kopurua (% 50). Interesgarria izan daiteke ezberdintasun hauen atzean egon litezkeen faktoreetan sakontzea.

Tokiko erakundeetan lurraldearen arabera ezberdintasunik antzematen dugu?

Tokiko erakundeen kasuan, datu orokorra baino **feminizazio-maila handiagoa erakusten dute Bizkaiak eta Gipuzkoak** (% 70 eta % 67 hurrenez hurren). **Arabian, berriz, bestelakoa da joera**, eta emakume eta gizonen presentzia orekatuagoa da (% 56 emakumeak eta % 44 gizonak), nahiz eta nabarmentzekoa den Arabako kasuan askoz txikiagoa dela euskara-teknikarien kopurua.

Udalerrien tamaina esanguratsua da feminizazio-maila aztertzerakoan?


Hiriburuei erreparatuta, euskara-zerbitzuen feminizazio-maila datu orokorra baino handiagoa da (% 67-75 bitartean). Esan dezakegu, beraz, **hiriburuetakoa euskara-zerbitzuak oso feminizatuta** daudela.

Udaletan, hiriburuak barne, emakumeak dira euskara-teknikarien % 67-71, salbuespen batekin, hots, **30.000 biztanletik gorako udaletan** parekoa da emakume eta gizonen kopurua (edo, zehatzago esanda gizonak dira gehiago, % 53 inguru). Datu honek arreta ematen du gainontzeko eremuetan ikusten dugun joera betetzen ez delako, Jaurlaritzan eta Aldundietan bezalaxe. Halere, ezin baieztatu dezakegu joera jakin bat dagoenik, hiriburuen kasuan euskara-zerbitzuen feminizazio-maila udalerritik txikien parekoa baita, hau da, oso handia (% 70 bi kasuetan). Interesgarria izan daiteke ezberdintasun hauen atzean egon litezkeen faktoreetan sakontzea aldagai gehiagoren inguruko datuak bilduta, esaterako, eremu soziolinguistikoa, zerbitzua noiz sortu zen, nor bultzatu zuen zerbitzuaren sorrera (arduradun politiko eta teknikoak), etab.

4.1. Euskara teknikarien feminizazio-maila orokorra

Euskara teknikarien ia bi heren emakumeak dira eta heren bat baino gehixeago gizonak. Emakumeak nabarmen gehiago dira, beraz, eremu honetan.

Euskara-teknikariak, sexua-generoaren arabera




Euskara teknikariak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
	167	64,2	93	35,8	260	100

Aztertu ditugun erakunde guztietako datuak kontuan hartuta, euskara teknikarien feminizazioa % 64,2koa da. 260 teknikaritik 167 dira emakumeak eta 93 gizonak.

Datuok pixka bat xeheago aztertuko ditugu, jarraian.

4.2. Euskara teknikarien feminizazio-maila erakundearen arabera



Euskara teknikariak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
	167	63,74	93	35,50	260	100
Udalak, kuadrillak, mankomunitateak	84	66,4	42	33,6	126	48,5
Osakidetza	22	64,7	12	35,3	34	13
UEMA	13	93	1	7	14	5,4
Aldundiak	9	50	9	50	18	6,9
Eusko Jaurlaritza	39	57,35	29	42,65	68	26

Euskara teknikarien erdia (% 48,5) tokiko erakundeetan dago, hau da, udal, mankomunitate eta kuadrilletako euskara-zerbitzuetan. **Horietan, euskara teknikarien feminizazio-maila % 66,4koa da**; datu orokorraren nahiko antzekoa (ia bi puntu handixeagoa tokiko erakundeetan).

Euskara teknikarien laurdena (% 26) Eusko Jaurlaritzan dago eta, bertan, emakume eta gizonen **kopuruak orekatuagoak** dira. Emakumeak dira % 57 eta gizonak % 43.

Bestetik, badaude joera orokorretik aldentzen diren bi datu. **UEMA**n feminizazio-maila oso da handia (% 93) eta **Aldundietan, berriz, parekoa** da emakume eta gizonen kopurua (% 50). Interesgarria izan daiteke desberdinkeria hauen atzean egon daitezkeen faktoreen inguruko hipotesiak landu eta aztertzea.

4.3. Euskara teknikarien feminizazio-maila erakundearen eta lurraldearen arabera

Aldundiak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
Araba	3	60	2	40	5	100
Bizkaia	3	50	3	50	6	100
Gipuzkoa	3	43	4	57	7	100
Guztira	9	50	9	50	18	100

Aldundietan emakume eta gizonen presentzia orekatua den arren, aldundi batetik bestera badaude ezberdintasunak. Feminizazio handiena daukana Arabako Foru Aldundia eta txikiena daukana Gipuzkoakoa. Halere, **kopuruak parekotasuneko printzipioaren barruan** mantentzen dira; eta teknikari-kopurua txikia denez, pertsona bakar bat aldatzeak ehuneko nabarmen aldatzea ekar dezake.

Tokiko erakundeak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
Araba	9	56,25	7	43,75	16	100
Bizkaia	26	70,3	11	29,7	37	100
Gipuzkoa	49	67,1	24	32,9	73	100
Guztira	84	66,66	42	33,33	126	100

*Udalak (hiriburuak barne), mankomunitateak eta kuadrillak.

Tokiko erakundeen kasuan, datu orokorra baino **feminizazio-maila handiagoa erakusten dute Bizkaiak eta Gipuzkoak** (% 70 eta % 67 hurrenez hurren). **Arabaren berriz, bestelakoa da joera** eta emakume eta gizonen presentzia orekatuagoa da (% 56 emakumeak eta % 44 gizonak).

Aurreko datuak, xeheago aztertuta (hiriburuak, gainerako udalak eta mankomunitate/kuadrillak banatuta):

Hiriburuak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
Araba (Gasteiz)	6	75	2	25	8	100
Bizkaia (Bilbo)	4	67	2	33	6	100
Gipuzkoa (Donostia)	9	69	4	31	13	100
Guztira	19	70	8	30	27	100

Hiriburuei erreparatuta, horietako euskara-zerbitzuen feminizazio-mailak datu orokorrak gaintzen ditu eta % 67-75 bitartean kokatzen da. Esan dezakegu, beraz, **hiriburuetakoa euskara-zerbitzuak oso feminizatuta** daudela.

Udalak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
Araba	1	33	2	67	3	100
Bizkaia	19	68	9	32	28	100
Gipuzkoa	40	66,7	20	33,3	60	100
Guztira	60	64,9	31	34,1	91	100

Mankomunitateak eta kuadrillak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
Araba	2	40	3	60	5	100
Bizkaia	3	100	-	-	3	100
Gipuzkoa	-		-	-	-	100
Guztira	5	62,5	3	37,5	8	100

Antzeko erakunde-motak kontuan hartuta eta lurraldearen arabera bereizita, oro har, ez dugu ezberdintasun esanguratsurik antzematen, Arabako udal eta kuadrilletako datua salbu (emakume eta gizonen presentzia justu alderantzikoa da eremu honetan); nahiz eta kontuan izan behar dugun oso kopuru txikiak direla Arabakoak.

4.4. Euskara teknikarien feminizazio-maila udalerrien tamainaren arabera

Udalak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
< 2.500 bizt.	4	100	0	0,00	4	100
2.500-<10.000 bizt.	19	70,37	8	29,63	27	100
10.000-<30.000 bizt.	29	67,44	14	32,56	43	100
>30000 bizt.	8	47,06	9	52,94	17	100
Hiriburuak	19	70,37	8	29,63	27	100
Guztira	79	66,95	39	33,05	118	100

Mankomunitateak eta kuadrillak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
< 2.500 bizt.	1	100,00	0	0,00	1	100
2.500-<10.000 bizt.	0	0,00	2	100,00	2	100
10.000-<30.000 bizt.	2	66,67	1	33,33	3	100
>30000 bizt.	2	100,00	0	0,00	2	100
Guztira	5	62,50	3	37,50	8	100

Oharra: mankomunitate eta kuadrilla hauek (5 dira, guztira) hainbat udalerriri ematen diete zerbitzua.

Udaletan, hiriburuak barne, emakumeak dira euskara teknikarien % 67-71, salbuespen batekin, hots, 30.000 biztanletik gorako udalerrri handietako udaletan parekoa da emakume eta gizonen kopurua (edo, zehatzago esanda gizonak dira gehiago, % 53 inguru). Datu honek arreta ematen du gainontzeko eremuetan ikusten dugun joera betetzen ez delako, Jaurlearitza eta Aldundietan bezalaxe. Halere, ezin baieztatu dezakegu joera jakin bat dagoenik, hiriburuaren kasuan euskara-zerbitzuen feminizazio-maila udalerrri txikien parekoa baita, hau da, oso handia (% 70 bi kasuetan).

Interesgarria izan daiteke ezberdintasun hauen atzean egon litezkeen faktoreetan sakontzea aldagai gehiagoren inguruko datuak bilduta, esaterako, eremu soziolinguistikoa, zerbitzua noiz sortu zen, nork bultzatu zuen zerbitzuaren sorrera (arduradun politiko eta teknikoak), etab.

4.5. Testuingurua edo euskara teknikarien feminizazio-maila administrazio publikoko beste esparru batzuetako egoerarekin alderatuta

Euskara teknikarien feminizazioa aztertzen jarraitu aurretik, geldialdi bat egin eta administrazio publikoaren testuinguruari erreparatu nahi izan diogu. Ikusi nahi izan dugu ea zer gertatzen den administrazio publikoan emakume eta gizonen parte-hartzeari dagokionez, oro har; batez ere, euskara teknikarien ofizioarekin gertatzen dena beste ofizioetan ere gertatzen den ikusteko eta aztertzen ari garen errealitatea hobeto ulertzen laguntzeko.

Begirada orokor batetik erreparatuta, administrazio publikoan lan egiten duen % 35,5a emakumea da eta % 13,8 gizona. Beste era batera esanda, **administrazio publikoan emakumeak dira hamarretik 7 eta gizonak hamarretik 3**. Beraz, administrazio publikoa eremu feminizatua da, oro har; nahiz eta lan-eremuaren eta lanpostuaren arabera, ezberdintasunak egon. Alde horretatik, euskara teknikarien feminizazio-maila bat dator administrazio publikoaren feminizazio-mailarekin.

3.25. taula. Biztanleria landuna, jarduera-adarraren eta sexuaren arabera. Milakoetan eta ehunekoetan.

EAE 2021

Jarduera-adarrak	GUZTIRA		EMAKUMEAK			GIZONAK		
	(Abs.)	(% b)	(Abs.)	(% b)	(% h)	(Abs.)	(% b)	(% h)
Guztira	957,0	100,0	468,2	100,0	48,9	488,8	100,0	51,1
Nekazaritza	9,1	1,0	2,4	0,5	26,4	6,7	1,4	73,6
Erauzketa-industriak	15,0	1,6	4	0,9	26,7	11	2,3	73,3
Manufaktura-industria	185,8	19,4	40,6	8,7	21,9	145,2	29,7	78,1
Eraikuntza	44,7	4,7	4,3	0,9	9,6	40,3	8,2	90,2
Txikizkako eta handizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa; garraioa eta biltegiatzea; ostalaritza	231,4	24,2	102,4	21,9	44,3	129	26,4	55,7
Informazioa eta komunikazioak	45,6	4,8	21,3	4,5	46,7	24,3	5,0	53,3
Finantza- eta aseguru-jarduerak	20,5	2,1	11,6	2,5	56,6	8,9	1,8	43,4
Higiezinaren arloko jarduerak	2,4	0,3	1,7	0,4	70,8	0,6	0,1	25,0
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	103,6	10,8	59,1	12,6	57,0	44,6	9,1	43,1
Administrazio publikoa eta defentsa, derrigorrezko Gizarte Segurantzza; hezkuntza; osasungintza-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak	233,3	24,4	166	35,5	71,2	67,3	13,8	28,8
Jarduera artistikoak, aisialdikoak eta entretenimendukoak; etxeak, etxeke enplegatzaile eta norberak erabiltzeko ondasun eta zerbitzuen sortzaile gisa; lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak; beste zerbitzu batzuk.	65,6	6,9	54,7	11,7	83,4	10,9	2,2	16,6

Oharra: 2021eko 4. hiruhilekoa

Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta

*Iturria: Emakunderen Zifrak 2022

Eustaten datuei erreparatuta, 2021ean EAEko administrazio publikoan ziharduen % 63,8 ziren emakumeak 2021ean eta % 36,2, berriz, gizonak.

Urtarrilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, sexuaren arabera

	2016		2017		2018		2019		2020		2021	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	130.916	100,0	132.442	100,0	134.925	100,0	139.569	100,0	139.885	100,0	142.526	100,0
Gizonak	50.239	38,4	50.249	37,9	50.464	37,4	51.456	36,9	51.670	36,9	51.617	36,2
Emakumeak	80.677	61,6	82.193	62,1	84.461	62,6	88.113	63,1	88.215	63,1	90.909	63,8

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrrenda

Eustaten datuen arabera, **Eusko Jaurlaritzaren kasuan, emakumeen ehunekoa % 70era** iristen da. Alde horretatik, **arreta ematen du euskara teknikarien artean gizonen presentzia handiagoa aurkitzeak Jaurlaritzan (euskara teknikarien % 43 gizonak dira)**. Izan ere, **ez dator bat euskara teknikarien feminizazio-mailarekin**, ezta Eusko Jaurlaritzaren feminizazio-mailarekin ere. Lehen aipatu dugun bezala, interesgarria izan daiteke aztertzea gizonen presentzia handiagoa eta emakumeen presentzia txikiagoa ekarri duten faktoreen elkarreragina.

Erakunde publikoen feminizazio-mailari erreparatzen jarraituta, **aldundietan bestelakoa da egoera**, Eustatek erakusten digunez. **Emakumeak dira % 58,9 eta gizonak % 41,1**. Kasu honetan, kopuru hauek **nahiko lerratuta daude aldundietako euskara teknikarien artean emakume eta gizonen presentziarekin**; erdia emakumeak eta beste erdia gizonak baitira. Lehen aipatu bezala, aldundietako euskara teknikarien feminizazio-maila ez dator joera orokorrekin bat (Eusko Jaurlaritzako egoerarekin batera); baina bat dator aldundietan emakume eta gizonen presentziarekin.

Azkenik, Eustaten arabera, **tokiko erakundeetan, gizonen eta emakumeen presentzia nahiko orekatua** da: gizonen % 50,6 eta emakumeen % 49,4. Alde horretatik, **euskara teknikarietan antzematen den feminizazio-mailak arreta** ematen du, euskara teknikarien artean emakumeak baitira bi heren eta gizonak bakarra.

Edozein modutan, asko ikertu izan da segregazio horizontalari buruz eta hamaika diagnostikok erakutsi digute erakunde publikoetan ere **segregazio horizontalak** pisu nabarmena duena. Horrek esan nahi du badaudela bereziki feminizatutako esparruak eta bereziki maskulinizatuak. Administrazioan, oro har, emakume eta gizonen kopuru jakin batzuk egoteak, beraz, ez du esan nahi emakume eta gizonak modu orekatuan banatuko direnik esparru guztietan. Araua gehiago da kontrakoa: lan-esparruaren eta lan-motaren arabera, emakumeak eta gizonak lanpostu ezberdinetan kokatzen dira.

Segregazio horizontalaren arauari jarraiki, **administrazio publikoan badaude bereziki emakumez edo gizonen osatutako eremuak**. Ezagunak dira horietako batzuk beren feminizazio-mailagatik (osasuna, hezkuntza edo zerbitzu sozialak, esaterako) edo maskulinizazio-mailagatik (Ertzaintza, udaltzaingoa edo zerbitzu publikoak/herrilanak, esaterako). Horiez gain, nabarmentzekoa da izaera sozialeko esparruetan antzematen den feminizazioa (kulturan, gazterian, partaidetzan...), euskararen biziberritzearekin batera. **Euskara teknikarien esparruan identifikatu dugun feminizazioa, beraz, ez da errealitate isolatu bat** eta antzeko feminizazio-prozesuak gertatu dira (edo gertatzen ari dira) izaera sozialeko gainerako eremuetan ere.

Bukatzeko, euskararen biziberritzera etorrira, datuak intuizioak baino gutxiago ditugun arren, euskara biziberritzeko jarduera profesionalak nabarmen feminizatuta daudela ikus dezakegu. Horrela da helduen euskalduntzeari begiratzen badiogu edo euskalgintza profesionalari begiratzen badiogu.

5 SEGREGAZIO BERTIKALA

Datu orokorrean harago, euskara teknikarien feminizazioa nola gorpuzten den aztertu nahi izan dugu. Lehenik eta behin, atal honetan aztertu dugu **euskara-zerbitzuetako ardura-postuetan emakume eta gizonen presentzia**; ea euskara teknikarietan ematen den feminizazio-maila mantentzen den ardura-postuetan edo, alderantziz, emakumeak azpi-ordezkatuta dauden.

SEGREGAZIO BERTIKALA. DATURIK ESANGURATSUENAK, LABURBILDUTA:

Euskara zerbitzuetan daukaten lekuari eta rolari erreparatuta, gehiago dira teknikari-lanpostua betetzen duten emakumeak, zerbitzuburu edo lantalde baten arduradun gisa dihardutenak baino. Eta, alderantziz, proportzionalki gizonak gehiago daude zerbitzuburu edo lantalde baten ardura duten lanpostuetan, teknikari-lanpostuetan baino. **Segregazio bertikal bat existitzen da, nahiz eta ez den oso handia.**

Emakumeak azpi-ordezkatuta daude ardura-postuetan (5/6 puntuko aldearekin): euskara-teknikari guztien % 64,2 emakumeak diren bitartean, ardura-postuetan beren presentzia urriagoa da (% 59). Gizonak, berriz, gain-ordezkatuta daude ardura-postuetan: euskara-teknikari guztien % 35 diren bitartean, ardura-postuetan beren presentzia % 41ekoa da.

Beste era batera esanda, emakume guztien % 73k teknikari-postuetan dihardute eta % 27k ardura-postuetan; teknikari-postuetan diharduten gizonak % 66,6 diren bitartean eta ardura-postuetan dihardutenak % 33,3 diren bitartean. **Emakumeen % 27k eta gizonen % 33,3k dihardute ardura-posturen batean.**

Segregazio bertikala erakundeka aztertuz gero, Aldundietan erabateko segregazio bertikala dago, ardura-postu guztiak gizonak betetzen baitituzte. Osakidetza da segregazio bertikal nabarmena identifikatzen dugun beste erakundea, 15 puntuko aldearekin. **Gainerako erakundeetan, Eusko Jaurlaritzan eta, bereziki tokiko erakundeetan** (euskara-teknikarien erdia bertan daude) **ez dugu segregazio bertikal nabarmenik identifikatu** (puntu 1eko eta 2ko alde negatiboa, hurrenez hurren).


Tokiko erakundeak herrialdeka aztertuz gero, datu hauek ditugu:

- **Araba: 12 puntuko alde negatiboa.** Arabako tokiko erakundeetan dago emakume eta gizonen arteko oreka handiena (eta, beraz, gizonen presentzia handiena ere hemen dago); baina, horrekin batera, nabarmen handiagoa da ardura-postuetan dauden gizonen pisu erlatiboa (segregazio bertikal nabarmena).
- **Bizkaia: 6 puntuko alde positiboa.**
- **Gipuzkoa: 3 puntuko alde negatiboa.**

Bestetik, hiriburu-zerbitzuburu/arduradun ia guztiak emakumeak dira (8tik 7). Hiriburuei begiratuta, beraz, **emakumeak gizonak baino neurri handiagoan dira zerbitzuburu/arduradun** (18 puntuko alde positiboa) gizonak baino.


5.1. Segregazio bertikala, oro har (zerbitzuburuak eta lantalderen baten ardura dutenak, batetik, eta teknikariak, bestetik)

Euskara-teknikariak, oro har:



■ Emakumeak ■ Gizonak

Ardura-postuetan daudenak:



Euskara zerbitzuetan daukaten presentzia kontuan hartuta, **emakumeak azpi-ordezkatuta daude ardura-postuetan** (5 puntuko aldearekin); eta gizonak, berriz, neurri handiagoan betetzen dituzte ardura-postuak. Emakumeak euskara-zerbitzuetan % 64 diren bitartean, ardura-postuetan beren presentzia % 59koa da. Gizonak euskara-zerbitzuetan % 36 diren bitartean, ardura-postuetan beren presentzia % 41ekoa da.

GUZTIRA	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
Zerbitzuburu/arduradunak	45	59%	31	41%	76	100%
Teknikariak	122	66%	62	34%	184	100%
Teknikariak (arduradun nahiz ez) guztira	167	64%	93	36%	260	100%
Zerbitzuburu eta arduradunen %*	26,9		33,3			

*Emakumeak emakumeekiko eta gizonak gizonekiko.

5.2. Segregazio bertikala erakundez erakunde

	Emakumeak %	Gizonak %
Eusko Jaurlaritzaren	-1	+1
Aldundiak	-50	+50
UEMA	+7	-7
Osakidetza	-15	+15
Tokiko erakundeak	-2	+2

Datuotan ikus daitekeen moduan, **aldundietan erabateko segregazio bertikala** dago, ardura-postu guztiak gizonak betetzen baitituzte. **Osakidetza** da segregazio bertikal nabarmena identifikatzen dugun beste erakundea, 15 puntuko aldearekin. **Gainerako erakundeetan, Eusko Jaurlaritzan eta, bereziki tokiko erakundeetan** (euskara teknikarien erdia bertan daude) **ez dugu segregazio bertikal nabarmenik identifikatu**.

Jarraian jaso ditugu datuok erakundez erakunde:

Eusko Jaurlaritzaren	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
Zerbitzuburu/arduradunak	5	56%	4	44%	9	100%
Teknikariak	34	58%	25	42%	59	100%
GUZTIRA	39	57%	29	43%	68	100%
Zerbitzuburu eta arduradunen ehunekoa*	12,8		13,8			

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, puntu bateko alde negatiboa dago euskara-zerbitzua osatzen duten emakumeen eta ardura-postuak betetzen dituzten emakumeen artean. **Ez dugu segregazio bertikal nabarmenik antzeman**.

Aldundiak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
Zerbitzuburuak eta arduradunak	0	0	7	100	7	100
Teknikariak	9	81,8	2	18,2	11	100
Guztira	9	50	9	50	18	100
Zerbitzuburu eta arduradunen %*		% 0		% 77,8		

*Emakumeak emakumeekiko eta gizonak gizonekiko.

Aldundietan emakume eta gizonen kopurua parekoa da, baina zerbitzuburu eta arduradun guztiak gizonak dira, gizonen % 77,8 da zerbitzuburuak, emakumeen % 0ren ondoan. **Segregazio bertikala erabatekoa** da.

UEMA	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
Zerbitzuburu eta arduradunak	2	100	0		1	100
Teknikariak	11	92	1	8	13	100
Guztira	13	93	1	7	14	100
Zerbitzuburu eta arduradunen %		% 15		% 0		

UEMAko bi arduradunak emakumeak dira. Gizon bakarra dagoela kontuan hartuta, ardura-postuetan emakume eta gizonen arteko **banaketa parekoa** dela esan dezakegu.

Osakidetzak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
Zerbitzuburu/arduradunak	1	50%	1	50%	2	100%
Teknikariak	21	66%	11	34%	32	100%
GUZTIRA	22	65%	12	35%	34	100%
Zerbitzuburu eta arduradunen %	% 4,5		% 8,3			

Osakidetzan euskara-zerbitzua osatzen duten % 65 emakumeak diren arren, gutxiago dira ardura-postuetan daudenak, proportzioan (% 50). Gizonekin alderantziz gertatzen da: % 35 dira, guztira, baina ardura-postuetan % 50a dira. **Segregazio bertikal nabarmena dago, beraz; 15 puntukoa.**

Segregazio bertikala tokiko erakundeetan (hiriburuak, gainerako udalak eta mankomunitate/kuadrillak):

Tokiko erakundeak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
Zerbitzuburuak eta arduradunak	41	65	22	35	63	100
Teknikariak	43	68	20	32	63	100
Guztira	84	67	42	33	126	100
Zerbitzuburu eta arduradunen %		% 49		% 52		

Tokiko erakundeetan daude euskara teknikari gehien (% 48). Emakumeek ardura-postuetan duten presentzia oro har euskara-zerbitzuetan duten presentzia baino bi puntu baxuagoa da. **Segregazio bertikala oso neurri txikian** ematen dela esan dezakegu.

Datuok xeheago aztertuta:

Hiriburuak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
Zerbitzuburuak eta arduradunak	7	88	1	13	8	100
Teknikariak	12	63	7	37	19	100
Guztira	19	70	8	30	27	100
Zerbitzuburu eta arduradunen %		% 36,8		% 12,5		

Hiriburuetako zerbitzuburu/arduradun ia guztiak emakumeak dira (8tik 7). Hiriburuei begiratuta, beraz, **emakumeak gizonak baino neurri handiagoan dira zerbitzuburu (18 puntuko alde positiboa) gizonak baino.**

Udaletako datuak, oro har:

UDALAK (hiriburuak kenduta)	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
Zerbitzuburu/arduradunak	31	63	18	37	49	100
Teknikariak	29	69	13	31	42	100
GUZTIRA	60	66%	31	34%	91	
Zerbitzuburu eta arduradunen %	52%		58%			

Kuadrillak eta mankomunitateak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		%		%		%
Zerbitzuburuak eta arduradunak	3	50	3	50	6	100
Teknikariak	2	100	0	0	2	100
Guztira	5	62,5	3	37,5	8	100
Zerbitzuburu eta arduradunen %		% 60		% 100		

Udaletan 3 puntuko alde negatiboa dago, emakumeen kontra; eta mankomunitate eta kuadrilletan, 12 puntu ingurukoa (azken hauen kasuan oso teknikari gutxiz ari gara).

Tokiko erakundeak, herrialdeka (udalak, hiriburuak barne, mankomunitateak eta kuadrillak):

TOKIKO ERAKUNDE GUZTIAK		Emakumeak		Gizonak		Guztira	
			%		%		%
Araba	Zerbitzuburuak eta arduradunak	4	44%	5	56%	9	100%
	Teknikariak	5	71%	2	29%	7	100%
	Guztira	9	56%	7	44%	16	100%
	Zerbitzuburu eta arduradunen %		44%		71%		
Bizkaia	Zerbitzuburuak eta arduradunak	16	76%	5	24%	21	100%
	Teknikariak	10	63%	6	38%	16	100%
	Guztira	26	70%	11	30%	37	100%
	Zerbitzuburu eta arduradunen %		62%		45%		
Gipuzkoa	Zerbitzuburuak eta arduradunak	21	64%	12	36%	33	100
	Teknikariak	28	70%	12	30%	40	100
	Guztira	49	67%	24	33%	73	100
	Zerbitzuburu eta arduradunen %		45%		50%		

Tokiko erakundeak herrialdearen arabera:

- **Araba: 12 puntuko alde negatiboa.** Arreta ematen du Arabako tokiko erakundeak izatea tokiko erakundeetan emakume eta gizonen oreka handiena duenak (eta, beraz, emakumeen ehuneko txikiena) eta segregazio bertikal handiena.
- **Bizkaia: 6 puntuko alde positiboa.**
- **Gipuzkoa: 3 puntuko alde negatiboa.**

Tokiko erakundeak, biztanle-kopuruaren arabera (udalak, hiriburuak barne):

Udalak (Hiriburuak barne)		Emakumeak		Gizonak		Guztira	
			%		%		%
< 2.500 bizt.	Zerbitzuburuak eta arduradunak	2	100%	0	0%	2	100%
	Teknikariak	2	100%	0	0%	2	100%
	Guztira	4	100%	0	0%	4	100%
	Zerbitzuburu eta arduradunen %		50%		0%		
2.500-<10.000 bizt.	Zerbitzuburuak eta arduradunak	14	74%	5	26%	19	100%
	Teknikariak	5	63%	3	38%	8	100%
	Guztira	19	70%	8	30%	27	100%
	Zerbitzuburu eta arduradunen %		74%		63%		
10.000-<30.000	Zerbitzuburuak eta arduradunak	14	61%	9	39%	23	100%
	Teknikariak	15	75%	5	25%	20	100%
	Guztira	29	67%	14	33%	43	100%
	Zerbitzuburu en %		48%		64%		
>30000 bizt	Zerbitzuburuak eta arduradunak	8	62%	5	38%	13	100%
	Teknikariak	19	61%	12	39%	31	100%
	Guztira	27	61%	17	39%	44	100%
	Zerbitzuburu eta arduradunen %		30%		29%		

*Mankomunitateak eta kuadrillak ez ditugu sartu taula honetan. Izan ere, zerbitzua eskaintzen dien biztanle-kopuruaren arabera sailkatuz gero, errealitatea desitxuratzen da. Biztanle-kopuru handiei erantzun diezaiekete, batzuen kasuan, baina udal horiek ez dituzte biztanle-kopuru handiko udalen bitartekoak.

Azken taula hau aztertuta, ezin esan dezakegu udalen tamainaren araberako joera jakin bat dagoenik.

LANPOSTUEN KOKAPENA ERAKUNDEEN HIERARKIAN (AITORTZA FORMALA ETA SOLDATA). DATURIK ESANGURATSUENAK, LABURBILDUTA:

KATEGORIARI DAGOKIONEZ

Euskara-teknikarien lanpostuei A1, A1/A2 eta A2 kategoriak aitortzen zaizkie. Ardura-mailaren eta erakunde bakoitzean lanpostuari ematen zaion garrantziaren arabera, ordea, kategoria aldatu egiten da. Lanpostuen erdia baino gehixeago A2 kategorian daude eta 10etik 4 A1 edo A1/A2 kategoriatan.

Esan bezala, **lanpostu gehienak (% 52,2) A2 kategorian daude eta emakume eta gizon gehienak kategoria horretako lanpostuetan** daude, nahiz eta ez neurri berean. A2 kategoriako lanpostuetan daude emakumeen % 56,2 eta gizonen % 45,2. **Emakumeak, beraz, neurri handiagoan daude A2 kategoriako lanpostuetan. Gizonak, berriz, neurri handiagoan daude A1 eta A1/A2 kategoriako lanpostuetan.** Zehazki, A1 eta A1/A2 kategoriatan dauden gizonen % 51,6 eta emakumeen % 41,9 (ia hamar puntuko alde). A1 kategorian daude gizonen % 31,2 eta emakumeen % 26,5; eta A1/A2 kategorian gizonen % 20,4 eta emakumeen % 15,4.

Laburbilduz, **gizonen pisu erlatiboa handiagoa da kategoria altuenetan (A1 eta A1/A2) eta emakumeen pisu erlatiboa handiagoa da kategoria baxuagoan (A2).**

Desoreka horretan zeresana dute bi alderdik, nahiz eta, ziurrenik, bakarrak ez izan. Batetik, erakunde handietan dituzte lanpostu hauek kategoriarik altuenak (Eusko Jaurlaritzan eta Aldundietan, batez ere; Gipuzkoako Foru Aldundiaren salbuespenarekin). Aurretik esan bezala, erakunde horietan gizonen presentzia gainerako erakundeetan daukatena baino handiagoa da. Erakunde handi guztiek ez dute logika hori jarraitzen eta **hiriburuetan lanpostu gehienek A2 kategoria dute**, salbuespenen batekin. Honek emakumeen kontra jokatzeko du. Izan ere, hiriburuetako udaletan emakumeen presentzia oso da handia (teknikari guztien % 67-75) eta, gainera, ardura-postuetan dauden gehienak emakumeak dira. Oso feminizatua den UEMAK ere kategoria baxuagoko lanpostuak ditu (A2) eta, ondorioz, bertako langile gehienek kategoria hori dute.

Edozein modutan, tokiko erakundeetan daude euskara-teknikarien erdiak eta hauetan lanpostu gehienek A2 kategoria dute (% 63k, hain zuzen). **Gutxi dira, beraz, tokiko erakundeetan A1 kategoria daukatenak**, baina, gainera, **A1 kategorian dauden gizonen presentzia erlatiboa tokiko erakundeetan duten presentziaren oso gaintik dago:** gizonen presentzia erlatibo orokorra % 33koa den bitartean, A1 kategoriako presentzia erlatiboa % 50ekoa da (17 puntu altuagoa). Emakumeek A1 kategorian duten presentzia, berriz, kontrakoa: 16 puntu baxuagoa.

**Hurrengo orrian jarraitzen du.*

LANPOSTUEN KOKAPENA ERAKUNDEEN HIERARKIAN (AITORTZA FORMALA ETA SOLDATA). DATURIK ESANGURATSUENAK, LABURBILDUTA:

MAILARI DAGOKIONEZ

Euskara-teknikarien lanpostu bati aitortutako **mailarik baxuena 11 da (4 teknikari daude 11-14 mailetakoko lanpostuetan, denak emakumeak)**; eta **mailarik altuena, berriz, 29** (28-29 mailetakoko lanpostuetan 3 lagun daude, 2 gizon eta emakume 1).


Emakume eta gizon gehienak 23. mailan daude: emakumeen % 31,7 eta gizonen % 35,5. **21 mailan dago bigarren multzorik handiena**: emakumeen % 17,4 eta gizonen % 13,3. Emakume eta gizonen erdiak 23 eta 21 mailatan daude; nahiz eta **gizon gehixeago diren 23 mailan daudenak** eta, alderantziz, **emakume gehixeago diren 21 mailan** daudenak. Beraz, badago alde txiki bat emakume eta gizonen kokapenean.

Pertsona gehienak maila horietan kokatu arren, badago beherago eta gorago kokatzen den jendea. **Lanpostuen mailatan gora egin ahala, emakumeen ehunekoa murriztu egiten da eta gizonen ehunekoa gehitu.**


Emakume gehiago pilatzen dira mailarik baxuenetan: 18 mailatik behera daude emakumeen % 18,5 eta gizonen % 13,9. Eta gizon gehiago pilatzen dira mailarik altuenetan: 25 mailatik gora daude emakumeen % 8,38 eta gizonen % 13,98.

6.1. Euskara teknikarien banaketa, lanpostuaren kategoriari dagokionez

Euskara-teknikariak lanpostuaren kategoriaren arabera: kopuru absolutuak



Euskara-teknikariak lanpostuaren kategoriaren arabera: emakume eta gizonen banaketa ehunekotan.



GUZTIRA	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
A1	43	26,5	29	31,2	72	28,2
A1/A2	25	15,4	19	20,4	44	17,2
A2	91	56,2	42	45,2	133	52,2
B1	2	1,2	2	2,1	4	1,6
C1	1	0,6	1	1,1	2	0,8
GUZTIRA	162	100	93	100	255	100

Euskara teknikarien lanpostuei A1, A1/A2 eta A2 kategoriak aitortzen zaizkie. Ardura-mailaren eta erakunde bakoitzean lanpostuari ematen zaion garrantziaren arabera, ordea, kategoria aldatu egiten da. Lanpostuen erdia baino gehixeago A2 kategorian daude eta 10etik 4 A1 edo A1/A2 kategoriatan. B1 eta C1 kategoriatan dauden lanpostuak oso gutxi dira, baina badira batzuk (gutxi izan arren, deigarria da teknikari lanpostu bat kategoria horietan sailkatuta egotea).

Lanpostu gehienak A2 kategorian daude eta emakume eta gizon gehienak kategoria horretako lanpostuetan daude, nahiz eta ez neurri berean. Teknikari guztien % 52,2 daude kategoria horretan, emakume guztien % 56,2 (4 puntu gehiago) eta gizon guztien % 45,2 (7 puntu gutxiago) dauden bitartean. **Emakumeak, beraz, neurri handiagoan daude A2 kategoriako lanpostuetan. Gizonak, berriz, neurri handiagoan daude A1 eta A1/A2 kategoriako lanpostuetan:** A1 kategorian teknikari guztien % 28,2 dauden bitartean, gizon guztien % 31,2 daude bertan (3 puntu gehiago); eta A1/A2 kategorian teknikari guztien % 17,2 dauden bitartean, gizon guztien % 20,4 daude bertan (3 puntu gehiago).

Laburbilduz, gizonen pisu erlatiboa handiagoa da kategoria altuenetan (A1 eta A1/A2) eta emakumeen pisu erlatiboa handiagoa da kategoria baxuagoan (A2).

6.2. Euskara teknikarien banaketa, lanpostuaren mailari dagokionez

Lanpostuei kategoria jakin bat ezartzeaz gain, maila bat ere ezartzen zaie eta bien baturak (hirugarren ardatz baten baturarekin) lanpostu horrek erakundean daukan garrantzia islatzen du, nolabait. Horien arabera zehazten da lanpostuen soldata. Ikus dezagun, beraz, kategoriaz gain, zein maila aitortzen zaien euskara teknikarien lanpostuei eta zein den emakume eta gizonen banaketa.


GUZTIRA	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	N	%	N	%	N	Emakumeen %
11-15	8	4,79	3	3,23	11	73%
15-18	23	13,77	10	10,75	33	70%
19-21	47	28,14	17	18,28	64	73%
22-24	66	39,52	46	49,46	112	59%
25-27	13	7,78	11	11,83	24	54%
28-30	1	0,60	2	2,15	3	33%
Ez dakigu	9	5,39	4	4,30	13	69%
GUZTIRA	167	100	93	100	260	100

Aitortutako mailarik baxuena 11 izan da (4 teknikari daude 11-14 mailetakoko lanpostuetan, denak emakumeak); eta mailarik altuena, berriz, 29 (28-29 mailetakoko lanpostuetan 3 lagun daude, 2 gizon eta emakume 1).

Lanpostuen mailatan gora egin ahala, emakumeen ehunekoa murriztu egiten da eta gizonen ehunekoa gehitu, oro har. Mailarik baxuenetan emakumeak gain ordezkaturak daude: 11-21 mailen artean dauden teknikarien artean % 70-73 dira emakumeak. Gizonak, berriz, gain ordezkaturak daude mailarik altuenetan, 22 mailatik 29ra. Azken maila horietan emakume teknikarien presentzia erlatiboa % 33-59 bitartean dago.

Beste modu batera begiratuta, **gizon gehien (gizonen % 51) 22 eta 24 maila bitartean daude eta emakume gehien ere bai, nahiz eta kopuru apalagoan (% 39,5);** eta emakume-kopuru nabarmen bat dago 19-21 mailen artean (% 28).

Ikus ditzagun datuak xeheago, mailaz maila:



Datuak mailaz maila aztertuta, **emakume eta gizon gehien 23 mailan** daudela ikus dezakegu: emakumeen % 31,7 eta gizonen % 35,5. **21 mailan dago bigarren multzorik handiena**: emakumeen % 17,4 eta gizonen % 13,3. Emakumeen erdiak (% 49) 23 eta 21 mailatan daude, baita gizonen erdiak (% 49) ere; nahiz eta **gizon gehixeago diren 23 mailan daudenak** eta, alderantziz, **emakume gehixeago diren 21 mailan** daudenak.

Maila ertaina: erdian dagoen emakumea (83. emakumea) 22 mailan dago. Erdian dagoen gizona (43. gizona) 23 mailan dago. Maila bateko aldea dute, beraz.

Maila baxuenetan daudenak (18 mailatik behera):

- Emakumeen % 18,56
- Gizonen % 13,98

Maila altuenetan daudenak (25 mailatik gora):

- Emakumeen % 8,38
- Gizonen % 13,98

Emakume gehiago pilatzen dira mailarik baxuenetan: 18 mailatik behera daude emakumeen % 18,5 eta gizonen % 13,9. Eta gizon gehiago pilatzen dira mailarik altuenetan: 25 mailatik gora daude emakumeen % 8,38 eta gizonen % 13,98.

6.3. Euskara teknikarien banaketa kategoriaren eta erakunde-motaren arabera

EAE		Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		N	%	N	%	N	%
Eusko Jaurlaritza	A1	6	15,38	4	13,79	10	14,71
	A1/A2	25	64,10	19	65,52	44	64,7
	A2	8	20,51	6	20,69	14	20,59
	Guztira	39	100	29	100	68	100
Osakidetza*	A1	19	86,36	10	83,33	29	85,29
	A2	1	4,55		0,00	1	2,94
	B1	2	9,09	2	16,67	4	11,76
	Hutsik		0,00		0,00	0	0,00
	Guztira	22	100	12	100	34	100
UEMA	A1	1	7,69		0,00	1	7,14
	A2	12	92,31	1	100,00	13	92,86
	Guztira	13	100	1	100	14	100
GUZTIRA		74	63,79	42	36,21	116	100

*Osakidetza: Osakidetzako kategoriak izendatzeko orduan, kontuan hartu behar dugu, bertako lanpostuen kategoriaren sistema ezberdina dela: Osakidetzaren lanpostuen zerrendan 1 izendapena duten langileak profesional sanitarioak izan ohi dira; eta 2 izendapena dutenak ez-sanitarioak. Hortaz, Osakidetzako hizkuntza-normalkuntzako teknikariek A2/B2 kategoriak dituzte euren lanpostuen zerrenda, baina beste administrazioekin parekatzeko A1/B1 kategorija jarri diegu, hori baita baliokidea.

Euskara teknikarien lanpostuaren kategoriari dagokionez, EAE mailako erakundeetan, modu orekatuan banatzen dira emakume eta gizonak.

Eusko Jaurlaritzan, A1/A2 kategorian daude emakume eta gizon gehienak (emakumeen % 64 eta gizonen % 65); eta kontuan izan behar dugu feminizazio-maila baxuenetakoa daukan erakundea dela (teknikarien % 57 dira emakumeak), Aldundien ondoren. UEMAn, berriz, A2 kategorian daude ia denak; gogoan izan behar dugu oso erakunde feminizatua dela (% 93).

Aldundiak		Emakumeak		Gizonak		Hutsak		Guztira	
		N	%	N	%	N	%	N	%
Araba	A1	3	100,00	2	100,00			5	100,00
	A2		0,00		0,00			0	0,00
	Guztira	3	100	2	100	0	0	5	100,00
Bizkaia	A1	3	100,00	3	100,00			6	100,00
	A2		0,00		0,00			0	0,00
	Guztira	3	100	3	100	0	0	6	100,00
Gipuzkoa	A1	1	33,33		0,00			1	14,29
	A2	2	66,67	4	100,00			6	85,71
	Guztira	3	100	4	100	0	0	7	100,00
GUZTIRA		9	50,00	9	50,00	0	0,00	18	100,00

Hiru Foru Aldundietan, kategoriei dagokienez, banaketa parekatua da emakume eta gizonen artean. Ia denak A1 kategorian daude. Gipuzkoa da salbuespena, ia teknikari guztiak A2 kategorian baitute, zerbitzuburuak eta lantalde-arduradunak barne.

Bestetik, nabarmentzekoa da Aldundietan dutela gizonek presentzia erlatibo handiena (gizonak % 50 diren erakunde bakarra da). Beraz, **euskara teknikarien lanpostuak kategoriarik altuena duen erakundeetan dute presentzia parekidea.**

Hiriburuak		Emakumeak		Gizonak		Hutsak		Guztira	
		N	%	N	%	N	%	N	%
Bilbo	A1	3	75,00	2	100,00			5	83,33
	Ez dakigu	1	25,00		0,00			1	16,67
	Guztira	4	66,67	2	33,33	0	0	6	100,00
Donostia	A1	1	11,11		0,00			1	7,69
	A2	8	88,89	4	100,00			12	92,31
	Guztira	9	69,23	4	30,77	0	0	13	100,00
Gasteiz	A1		0,00		0,00			0	0,00
	A2	6	100,00	2	100,00			8	114,29
	Guztira	6	75,00	2	25,00	0	0	8	114,29
GUZTIRA		19	70,37	8	29,63	0	0,00	27	100,00

Bilboko Udalean lanpostu guztiek A1 kategoria dute, baina Donostia eta Gasteizen A2 kategoria dute gehienek (Donostiako lanpostu batek salbu). Datuak udalez udal aztertuz gero, emakume eta gizonen arteko banaketan ez da ezberdintasun nabarmenik antzematen. Begirada orokor batetik aztertuta, ordea, hiriburuetan emakumeen presentzia erlatiboa oso handia da (% 70) eta, gainera, ardura-postuak dituztenen artean are gehiago (% 88). **Lanpostu horiek EAE mailako eta Aldundietako lanpostu baliokideak baino kategoria baxuagoa izateak eragina du**, beraz, emakumeen egoeran.

TOKIKO ERAKUNDE GUZTIAK, KATEGORIAK	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
A1	10	50	10	50	20	100
A2	68	68	31	31	79	100
C1	1	50	1	50	2	100
Ez dakigu	5	100	0	0	5	100
GUZTIRA	84	65,6	42	32,81	126	100

Tokiko erakundeetan (hiriburuak kontuan hartuta), **euskara teknikarien % 63k A2 kategoria** dauka; % 16k, berriz, A1 kategoria. **Gutxi dira, beraz, A1 kategoria** daukatena.

Tokiko erakundeetan emakume eta gizonen banaketari begiratuta (kategoriari dagokionez), **A1 kategorian, gizonen presentzia erlatiboa tokiko erakundeetan duten presentziaren gaintik dago**. Presentzia erlatibo orokorra % 33koa den bitartean, A1 kategorian duten presentzia erlatiboa % 50ekoa da (17 puntu altuagoa). Emakumeek A1 kategorian duten presentzia, berriz, kontrakoa: 16 puntu baxuagoa.

A1 kategoria euskara teknikarien lanpostu gutxik dutela ikusi dugu aurreko taulan. Hiriburuetakoa udal batzuez gain (Bilbon, nagusiki, eta Donostian lanpostu batek) ikus dezagun zein udal-motak ezartzen dioten A1 kategoria lanpostu hauei eta nola dauden banatuta emakume eta gizonak:

	TOKIKO ERAKUNDEAK (HIRIBURUAK KENDUTA)	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		N	%	N	%	N	%
A1	< 2.500 bizt.		0,00		0,00	0	0,00
	2.500-<10.000 bizt.		0,00		0,00	0	0,00
	10.000-<30.000 bizt.	6	100,00	3	37,50	9	64,29
	>30000 bizt.		0,00	5	62,50	5	35,71
	GUZTIRA	6	42,86	8	57,14	14	100,00
A2	< 2.500 bizt.	5	9,26		0,00	5	6,25
	2.500-<10.000 bizt.	17	31,48	9	36,00	26	32,50
	10.000-<30.000 bizt.	25	46,30	12	48,00	38	47,50
	>30000 bizt.	7	12,96	4	16,00	11	13,75
	GUZTIRA	54	67,50	25	31,25	80	100,00
C1	< 2.500 bizt.		0,00	0	0,00	0	0,00
	2.500-<10.000 bizt.	1	100,00	0	0,00	1	50,00
	10.000-<30.000 bizt.		0,00	1	100,00	1	50,00
	>30000 bizt.		0,00		0,00	0	0,00
	GUZTIRA	1	50,00	1	50,00	2	100,00
Besterik/hutsik	< 2.500 bizt.		0,00				0,00
	2.500-<10.000 bizt.	1	25,00			1	33,33
	10.000-<30.000 bizt.						
	>30000 bizt.	3	75,00			3	100,00
	GUZTIRA	4	80,00	0	0,00	4	100,00
		65			34		

Hiriburu batzuetako udalez gain, **A1 kategoriak 10.000 biztanletik gorako udalerrietako udaletan** daude eta 14 lanpostu dira, hiriburuetaoak kontatu gabe. 10.000 eta 30.000 biztanle bitarteko udaletan, A1 kategoriako lanpostuetan dauden emakume eta gizonen presentzia orekatua da, udal horietan daukaten presentziarekin alderatuta (presentzia: emakumeak % 67 eta gizonak % 32). **30.000 biztanletik gorako udalerrietan, berriz, A1 kategorian dauden guztiak gizonak** dira. Errealitate honen atzean egon daitezkeen faktoreak gehiago arakatu beharko genituzke gertatzen dena hobeto ulertzeko.

6.4. Euskara teknikariak mailaren eta erakunde-motaren arabera

EAE		Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		N	%	N	%	N	%
Eusko Jaurlaritza	11-14	1	2,56		0,00	1	1,47
	15-18		0,00		0,00	0	0,00
	19-22	8	20,51	6	20,69	14	20,59
	23-26	28	71,79	21	72,41	49	72,06
	27-30	2	5,13	1	3,45	3	4,41
	Ez dakigu			1	3,45	1	1,47
	Guztira	39	100	29	100	68	100
UEMA	11-14		0,00		0,00	0	0,00
	15-18		0,00		0,00	0	0,00
	19-22	11	84,62	1	8,3	12	85,71
	23-26	2	15,38		0,00	2	14,29
	27-30		0,00		0,00	0	0,00
	Ez dakigu		0,00		0,00	0	0,00
	Guztira	13	100	1	100	14	100,00
Osakidetza	11-14		0,00		0,00	0	0,00
	15-18		0,00		0,00	0	0,00
	19-22	2	9,09	1	8,33	3	8,82
	23-26	20	90,91	10	83,33	30	88,24
	27-30		0,00	1	8,33	1	2,94
	Ez dakigu		0,00		0,00		0,00
	Guztira	22	100	12	100	34	100,00

Aldundiak		Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		N	%	N	%	N	%
Araba	11-14	0	0,00		0,00	0	0,00
	15-18	0	0,00		0,00	0	0,00
	19-22	3	100	1	50,00	4	80,00
	23-26	0	0,00	1	20,00	1	20,00
	27-30	0	0,00		0,00	0	0,00
	Guztira	3	100	2	100	5	100
Bizkaia	11-14		0,00		0,00	0	0,00
	15-18		0,00		0,00	0	0,00
	19-22		0,00		0,00	0	0,00
	23-26	3	100	2	66,67	3	50,00
	27-30		0,00	1	33,33	3	50,00
	Guztira	3	100	3	100	6	100
Gipuzkoa	11-14		0,00		0,00	0	0,00
	15-18	2	66,67	2	50,00	4	57,14
	19-22	1	33,33	1	25,00	2	28,57
	23-26		0,00	1	25,00	1	14,29
	27-30		0,00		0,00	0	0,00
	Guztira	3	100	4	100	7	100

EAE mailako erakundeetan ez da desberdinkeria nabarmenik antzematen mailari dagokionez. Aldundietan, gizonen zati bat (laurdena edo herena, aldundiaren arabera) emakumeak baino koska bat goragoko maila-multzoan dago.

Hiriburuak		Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		N	%	N	%	N	%
Bilbo	11-14		0,00		0,00	0	0,00
	15-18		0,00		0,00	0	0,00
	19-22		0,00		0,00	0	0,00
	23-26	2	50,00	2	100	4	66,67
	27-30	2	50,00		0,00	2	33,33
	Guztira	4	100	2	100	6	100,00
Donostia	11-14		0,00		0,00	0	0,00
	15-18		0,00		0,00	0	0,00
	19-22	6	66,67	3	75,00	9	69,23
	23-26	1	11,11	1	25,00	2	15,38
	27-30	1	11,11		0,00	1	7,69

Hiriburuak		Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		N	%	N	%	N	%
	Ez dakigu	1	11,11		0,00	1	7,69
	Guztira	9	100	4	100	13	100,00
Gasteiz	11-14		0,00		0,00	0	0,00
	15-18		0,00		0,00	0	0,00
	19-22		0,00		0,00	0	0,00
	23-26	6	100	2	100	8	100,00
	27-30		0,00		0,00	0	0,00
	hutsak		0,00		0,00	0	0,00
	Guztira	6	100	2	100	8	100,00

Hiriburuetan ez dugu desberdinkeria nabarmenik antzeman.

TOKIKO ERAKUNDE GUZTIAK, MAILAK	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
11-14	7	70	3	30	10	100,00
15-18	21	72	8	28	29	100,00
19-21	22	71	8	26	31	100,00
22-24	18	53	16	47	34	100,00
25-27	6	67	3	33	9	100,00
28-30	1	50	1	50	2	100,00
Ez dakigu	9	69	3	23	13	100,00
GUZTIRA	84	65,6	42	32,81	128	100,00

Tokiko erakundeetan desberdinkeria batzuk antzematzen dira mailari dagokionez. Mailarik baxuenetan, alegia, **11 mailatik 21 mailara bitartean, emakumeak gain ordezkaturak** daude (teknikarien % 70-72 emakumeak dira). Gizonen presentzia berriz, nabarmen handiagoa da 22-29 mailen artean (teknikarien % 67-50 gizonak dira maila hauetan).

Euskara teknikariak, sexuaren eta kontratu-motaren arabera:

GUZTIRA	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Funtzionarioa/estatutarioa	80	47,90	42	45,16	122	46,56
Bitarteko funtzionarioa/estatutarioa	62	37,13	38	40,86	100	38,55
Laboral finkoa	11	6,59	5	5,38	16	6,11
Behin-behineko laborala/estatutarioa	4	2,40	3	3,23	7	2,67
Besterik	3	1,80	1	1,08	4	1,53
(hutsik)	7	4,19	4	4,30	11	4,58
GUZTIRA	167	100,00	93	100,00	260	100,00

Ez dugu alde nabarmenik antzeman emakume eta gizonen artean.

7 EUSKARA TEKNIKARIEN SOSLAIA

DATURIK ESANGURATSUENAK, LABURBILDUTA:

Euskara-teknikarien ia bi heren emakumeak dira, eta heren bat pasatxo gizonak. Antzinasunari dagokionez, euskara-teknikariek 15 urteko antzinasuna dute, batez beste; eta administrazioan 18-20 urte ingurukoa. Ez dago alde nabarmenik sexua-generoaren arabera.

Adinari dagokionez, 46-55 urte eta 56 urtetik gorako adin-multzoan daude gehienak (% 72,7k) eta batz besteko adina 50 urtekoa da emakume nahiz gizonen kasuan. Halere, badaude ezberdintasunak emakume eta gizonen artean, adinari dagokionez. **Emakume gehienak 46-55 urte bitarteko adin-multzoan daude eta gizon gehienak, berriz, 56 urtetik gorako adin-multzoan.**

Datuek erakusten dute jadanik euskara-teknikarien artean sumatzen dena: **euskara-teknikari asko erretiro-adinetik gertu** daude (% 36k 56 urtetik gora dute). Nahiko kolektibo heldua da euskara-teknikariena eta belaunaldi gazteen proportzioa oso apala da (laurden bat dira 45 urtetik behera dituztenak). **Belaunaldi-aldaketa erronka garrantzitsu bat** izango da.

Bestetik, feminizazio-mailarik handiena 46-55 adin-tartean dago; eta 56 urtetik gorako artean ere euskara-teknikarien feminizazio-maila esanguratsua da. Duela urte batzuk euskara-teknikarien feminizazio esanguratsua gertatu zela dirudi. **Kopuruak parekoagoak dira 45 urtetik beherako artean.**

Euskara-teknikarien adina erakunde-mota bakoitza aztertuz gero, **badaude erakundeen arteko ezberdintasun batzuk.**

- ✓ **Tokiko erakundeetan 56 urtetik gorako proportzioa handiagoa** da, datu orokorrekin alderatuta (orokorrean % 36 izatetik, % 42,9 izatera). Emakume eta gizon gehienak adin-tarte horretan daude.
- ✓ **Eusko Jaurlaritzan datu orokorretan ikusi dugun antzeko egoera** dago: 46 urtetik gorako adin-multzoa da nabarmenena. Emakumeen kasuan, gehiago daude 46-55 adin-multzoan eta, gizonen kasuan, 56 urtetik gorako multzoan.
- ✓ **Aldundietan nabarmen apalagoa da 56 urtetik gorako pisua** (orokorrean % 36 izatetik % 16,6 izatera) eta erdia baino gehiago dira 46-55 adin-tartekoak (% 55,5).
- ✓ **UEMAko teknikarien adina oso da ezberdina gainerako erakundeekin alderatuta. Ez dago 56 urtetik gorako lagunik eta, gainontzeko adin-tarteetako lagun presentzia orekatua** da, beste erakundeetan 36-45 urte eta 35 urtetik beherako lagun presentzia oso urria den bitartean.
- ✓ **Osakidetza datu orokorretatik gertu** dago. 56 urtetik gorakoak dira gehienak; baina **35 urtetik beherakoek ere presentzia nabarmena dute.**

Zerbitziburuen adinari erreparatuta, gizon zerbitziburu eta talde-arduradun gehienek 56 urte baino gehiago dituzte. Emakumeen erdiak, berriz, adin hori dauka, baina, beste erdia, 46-55 adin-multzoan kokatzen da. **Badago ezberdintasun bat, beraz, emakume eta gizon arduradunen adinean.**


7.1. Argazki orokorra

Soslaia aztertzerakoan lau aldagaiei erreparatu diegu, nagusiki: sexua, adina, antzintasuna eta erakunde-mota

Euskara teknikarien sexua-generoa:

la bi heren emakumeak eta heren bat pasatxo gizonak.

Euskara-teknikariak, sexua-generoaren arabera



Euskara teknikarien adina, batez beste:

Euskara teknikariek 50 urte dituzte, batez beste eta ez dago alde nabarmenik sexua-generoaren arabera. Hurrengo atalean aztertuko ditugu adinari buruzko datu gehiago.

ADINA	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Adina (batez beste)	50,51	50,48	50,5

Euskara teknikarien antzintasuna:

Euskara teknikariek 15 urteko antzintasuna dute, batez beste; eta administrazioan 18-20 urte ingurukoa. Ez dago alde nabarmenik sexua-generoaren arabera.


ANTZINATASUNA	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Antzintasuna (euskara teknikari gisa)	15,04	15,43	15,7
Antzintasuna (administrazioan)	18,02	19,97	18,66

7.2. Euskara teknikarien adina xeheago

46-55 urte eta 56 urtetik gorako adin-multzoan daude gehienak (% 72,7k). Nahiz eta batez besteko adina 50 urtekoa izan emakume nahiz gizonen kasuan, emakume gehienak 46-55 urte bitarteko adin-multzoan daude eta gizon gehienak, berriz, 56 urtetik gorako adin-multzoan.

Adina		Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		N	%	N	%	N	%
Euskara teknikariak	35etik behera	18	10,8	13	13,98	31	11,9
	36-45	22	13,2	14	15,05	36	13,8
	46-55	67	40,1	27	29,03	94	36,2
	56tik gora	57	34,1	38	40,86	95	36,5
	Ez dakigu	3	1,8	1	1,08	4	1,5
	Guztira	167	100	93	100	260	100

Euskara-teknikariak adinaren arabera:




Datuok erakusten dute jadanik euskara teknikarien artean sumatzen dena: **euskara teknikari asko erretiro-adinetik gertu** daude (% 36k 56 urtetik gora dute) eta belaunaldi-aldaketa bat ekarriko du horrek. Adin-tarte horretan dauden **gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa** da eta, alde horretatik, sektorea are gehiago feminizatzea ekar dezake; hori euskara teknikari berrien araberakoa ere izango da. Izan ere, nahiz eta proportzioan gutxi diren 45 urtetik behera duten teknikariak, horien artean ez da antzematen emakume eta gizonen arteko halako desorekarik.

Bestetik, goiko grafikoan ikusten den bezala, 46-55 adin-tartean dago feminizazio-mailarik handiena; eta 56 urtetik gorako artean ere feminizazio-maila esanguratsua da. Duela urte batzuk euskara teknikarien feminizazio esanguratsua gertatu zela dirudi. Interesgarria izan liteke errealitatea hobeto ulertzeko euskara teknikari hauek ofiziora sartu ziren garaia aztertzea: noiz hasi ziren, zergatik eta nola, zer faktorek izan zuten zeresana, zein ibilbide egin

zuten euskara teknikari izatera iritsi aurretik, zer prestakuntza jaso zuten, nondik eskuratu zituzten ofiziorako ezagutzak...

Tokiko erakundeetako euskara-teknikariak, sexua-generoa eta adinaren arabera (%):



Emakume eta gizonei dagokienez, **kopuruak parekoagoak dira 45 urtetik beherakoen artean**. Gazteei erreparatuta, emakumeak gehiago izaten jarraitzen dute, baina aldea ez da hain handia.

Adinaren azterketa erakunde-mota bakoitzaren arabera:

Euskara teknikarien adina erakunde-mota bakoitzeko aztertuz gero, **badaude erakundeen arteko ezberdintasun batzuk:**

Erakunde-motak		Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		N	%	N	%	N	%
Tokiko erakundeak	35etik behera	8	9,5	7	16,7	15	11,9
	36-45	6	7,1	6	14,3	12	9,5
	46-55	31	36,9	10	23,8	41	32,5
	56tik gora	36	42,9	18	42,9	54	42,9
	Ez dakigu	3	3,6	1	2,4	4	3,2
	Guztira	84	100	42	100	126	100
Eusko Jauraritza	35etik behera	1	2,6	2	6,9	3	4,4
	36-45	8	20,5	5	17,2	13	19,1
	46-55	18	46,2	8	27,6	26	38,2
	56tik gora	12	30,8	14	48,3	26	38,2
	Ez dakigu						
	Guztira	39	100	29	100	68	100
Aldundiak	35etik behera	0	0,0	0	0,0	0	0,0
	36-45	2	22,2	1	11,1	3	16
	46-55	7	77,8	3	33,3	10	55,5
	56tik gora	0	0,0	5	33,3	5	16,6
	Ez dakigu						
	Guztira	9	100	9	77,7	18	88,1
UEMA	35etik behera	4	30,8	0	0	4	28,6
	36-45	4	30,8	1	100	5	35,7
	46-55	5	55,5	0	0	5	35,7
	56tik gora	0	0	0	0	0	0
	Ez dakigu						
	Guztira	13	117,1	1	100	14	100
Osakidetza	35etik behera	5	22,7	4	33,3	9	26,5
	36-45	2	9,1	1	8,3	3	8,8
	46-55	6	27,3	6	50,0	12	35,3
	56tik gora	9	40,9	1	8,3	10	29,4
	Ez dakigu						
	Guztira	22	100	12	100	34	100

Tokiko erakundeetan 56 urtetik gorakoen proportzioa handiagoa da (orokorrean % 36 izatetik, % 42,9 izatera). Emakume eta gizon gehienak adin-tarte horretan daude.

Eusko Jaurlaritzan datu orokorretan ikusi dugun antzeko egoera dago: 46 urtetik gorakoen adin-multzoa da nabarmenena. Emakumeen kasuan, gehiago daude 46-55 adin-multzoan eta, gizonen kasuan, 56 urtetik gorakoen multzoan.

Aldundietan nabarmen apalagoa da 56 urtetik gorakoen pisua (orokorrean % 36 izatetik % 16,6 izatera) eta erdia baino gehiago dira 46-55 adin-tartekoak (% 55,5).


UEMAko teknikarien adina oso da ezberdina gainerako erakundeekin alderatuta. Ez dago 56 urtetik gorako lagunik eta, gainontzeko adin-tarteetako lagunen presentzia orekatua da. Beste erakundeetan 36-45 urte eta 35 urtetik beherako lagunak oso gutxi dira eta UEMAn 46-55 adin-tartearen nahiko parekoak dira gazteagoen adin-multzoak.

Osakidetza datu orokorretatik gertu dago. 56 urtetik gorakoak dira gehienak; baina arreta ematen du **35 urtetik beherakoek ere presentzia nabarmena** izatea (% 26,5). Bestetik, emakume gehienak 56 urtetik gorako multzoan daude (% 40,9) eta gizon gehienak 46-55 adin-multzoan (% 50).

Segregazio bertikala eta adina:

Aztertutako erakunde guztiak	Emakumeak		Gizonak	
		%		%
Zerbitzuburuak eta arduradunak	52	100	36	100
< 35	1	2	2	6
36-45	3	6	4	11
46-55	24	46	6	17
56 <	24	46	23	64
Ez dakigu			1	3
Teknikariak	115	100	72	100
< 35	17	15	11	15
36-45	19	17	10	14
46-55	43	37	21	29
56 <	33	29	15	21
Ez dakigu	3	3	15	21
GUZTIRA	167	100	108	100

Zerbitzuburuak eta talde-arduradunak adinaren arabera:



Gizon zerbitzuburu eta talde-arduradun gehienek 56 urte baino gehiago dituzte. Emakumeen erdiak, berriz, adin hori dauka, baina, beste erdia, 46-55 adin-multzoan kokatzen da. **Badago ezberdintasun bat, beraz, emakume eta gizon arduradunen adinean.**

8 ONDORIOAK ETA ARAKATZEN JARRAITZEKO IDEIA BATZUK

Euskararen biziberritzearen hainbat esparrutan bezalaxe, euskararen feminizazioa euskara teknikarietan ere errealitate bat den galdetzen genuen aztelanaren hasieran. Gaur egungo datuek esaten digute neurri batean hala dela, **euskara teknikarien ia bi heren (% 64,2) emakumeak** baitira. Erakunde publikoetan euskara biziberritzeko lanean ari direnen artean nabarmena da emakumeen presentzia eta apala da gizonena (% 35,8). Tokiko erakundeetan daude euskara teknikaririk gehienak (ia erdiak) eta bertan feminizazio-maila zertxobait handiagoa da (emakumeak dira euskara teknikarien % 66,4).

Euskara teknikarien feminizazioa ez da erakunde guztietan modu berean gorpuzten, halere. UEMA, adibidez, oso feminizatutako erakundea da (emakumeak dira teknikarien % 93) eta Eusko Jaurlaritzan nahiz Aldundian kopuruak parekoagoak dira (gizonen presentzia handiagoa da bi erakunde handi hauetan). Interesgarria izan daiteke ezberdintasun hauen atzean egon litezkeen faktoreetan sakontzea.

Datu orokorreaz harago, euskara teknikarien feminizazioa nola gorpuzten den ezagutu nahi izan dugu eta **segregazio bertikala** euskara-zerbitzuetan ere gertatzen den aztertu dugu, beste hainbat eremutan bezala. Euskara-zerbitzuetan emakume eta gizonak daukaten lekuari eta rolari erreparatu diogu, zerbitzuburu edo lantalde baten ardura dakarten lanpostuetan arreta jarrita. **Datuek erakutsi digute gehiago direla teknikari-lanpostuan diharduten emakumeak, zerbitzuburu edo lantalde baten arduradun dihardutenak baino; eta, alderantziz, sektorean daukaten pisu erlatiboa baino handiagoa dela gizonen proportzioa zerbitzuburu edo lantalde-arduradun lanpostuetan.** Segregazio bertikala edo kristalezko sabaia existitzen da euskara-zerbitzuetan ere, nahiz eta ez den oso handia, oro har. Emakumeak teknikari guztien % 64,2 diren bitartean, ardura-postuetan % 59 dira. Gizonak, berriz, alderantziz: teknikari guztien artean % 35 diren bitartean, ardura-postuetan % 41 dira. Beste era batera esanda, emakumeen % 27k eta gizonen % 33,3k dihardute ardura-posturen batean.

Segregazio bertikala erakundeka aztertuz gero, alde nabarmenak daude. Aldundietan erabateko segregazio bertikala dago, ardura-postu guztiak gizonak betetzen baitituzte. Osakidetza da segregazio bertikal nabarmena identifikatzen dugun beste erakundea, 15 puntuko aldearekin. Gainerako erakundeetan, Eusko Jaurlaritzan eta, bereziki tokiko erakundeetan (euskara teknikarien erdia bertan daude) ez dugu segregazio bertikal nabarmenik identifikatu (puntu 1eko eta 2ko alde negatiboa, hurrenez hurren). Tokiko erakundeetan fokua jarrita, bestetik, Araban segregazio bertikal nabarmena dago eta hiriburuetako udaletan, teknikarien feminizazio-maila handia izateaz gain, emakumeak dira zerbitzuburu/talde-arduradun ia guztiak.

Zerbitzuburuaren adinari erreparatuta, bestalde, gizon zerbitzuburu eta talde-arduradun gehienek 56 urte baino gehiago dituzte. Emakumeen erdiak, berriz, adin hori dauka, baina, beste erdia, 46-55 adin-multzoan kokatzen da.

Euskara teknikarien lanpostuek erakundeen hierarkian duten lekuari erreparatu diogu, era berean. Euskara teknikarien lanpostuei, **oro har, A2 kategoria aitortzen zaie (lanpostuen % 52,2ri) eta, neurri txikiagoan A1 eta A1/A2 kategoriak (lanpostuen % 28,2ri eta % 17,2ri,**

hurrenez hurren). Mailari dagokionez, **lanpostu gehienak 21-23 maila dute aitortuta, baina badaude 11-14 mailan kokatuta dauden lanpostuak ere.**

Kategoria eta mailen arabera emakume eta gizonak nola banatzen diren aztertu aurretik, geldialdi bat egin nahiko genuke puntu honetan. Izan ere, **euskara teknikarien lanpostuari erakunde publikoetan ematen zaion garrantzia eta aitortzari (kategoria eta mailatara ekarrita) dagokionez, ez dago sailkapen bateratu bat eta erakunde batetik bestera ezberdintasun nabarmenak daude.** Bestetik, erakunde gehienetan euskara teknikarien lanpostuek antzeko ezaugarriak dituzten lanpostu teknikoek baino balorazio txikiagoa dute. Hirugarrenik, lanpostu batzuk legezkoa eta onargarria denaren azpitik daude: B eta C kategoriak eta 17 mailaren azpitik... Interesgarria izan daiteke Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik lanketa bat bultzatzea euskara teknikarien lanpostuak dagokion aitortza eta errekonozimendua izan dezan erakunde guztietan. Sektore feminizatua den neurrian, gainera, emakumeen lan-baldintzak hobetuko lirakeke esku-hartze honekin.

Emakume eta gizonen lanpostuen kategoria eta mailei erreparatuta, badago ezberdintasun bat emakumeen kaltetan. Teknikari gehienek A2 kategoria dutela aipatu dugu, baina **handiagoa da A2 kategorian kokatzen diren emakumeen proportzioa gizonena baino (% 56,2 eta % 45,2, hurrenez hurren).** Izan ere, **gizon gehiago daude proportzionalki A1 eta A1/A2 kategoriatan (gizonen % 51,6 eta emakumeen % 41,9).**

Desoreka horretan zeresana dute bi alderdik, nahiz eta, ziurrenik, bakarrak ez izan. Batetik, erakunde handietan dituzte lanpostuok kategoriarik altuenak (Eusko Jaurlaritzan eta Aldundietan, batez ere; Gipuzkoako Foru Aldundiaren salbuespenarekin). Hain zuzen ere, erakunde horietan gizonen presentzia gainerako erakundeetan daukatena baino handiagoa da. Erakunde handi guztiek ez dute logika hori jarraitzen, ordea, eta hiriburuetan, esaterako, lanpostu gehienek A2 kategoria dute, salbuespenen batekin. Horri gehitzen badiogu hiriburuetan, hain justu, emakumeen presentzia bereziki dela handia (teknikari guztien % 67-75) eta ia zerbitzuburu gehienak emakumeak direla; bada, hiriburuetan lanpostu hauek errekonozimendu txikiagoa izateak emakumeei egiten die kalte. Oso feminizatua den UEMAK ere kategoria baxuagoko lanpostuak ditu (A2) eta, ondorioz, bertako langile gehienek kategoria hori dute.

Edozein modutan, tokiko erakundeetan daude euskara teknikarien erdiak; eta hauetan lanpostu gehienak A2 kategoria dute (% 63k, hain zuzen). Hauetan A1 kategoria duten lanpostuak gutxi izan arren, A1 kategorian dauden gizonen presentzia erlatiboa tokiko erakundeetan duten presentziaren oso gaineratik dago: gizonen presentzia erlatibo orokorra % 33koa den bitartean, A1 kategoriako presentzia erlatiboa % 50ekoa da (17 puntu altuagoa). Emakumeek A1 kategorian duten presentzia, berriz, kontrakoa: 16 puntu baxuagoa.

Euskara teknikarien lanpostuen mailei (eta hauetan emakume eta gizonak nola banatzen diren) begiratuta, **euskara teknikarien lanpostu bati aitortutako mailarik baxuena 11 da (4 teknikari daude 11-14 mailatako lanpostuetan, denak emakumeak); eta mailarik altuena, berriz, 29 (28-29 mailatako lanpostuetan 3 lagun daude, 2 gizon eta emakume 1).** Emakume eta gizonen erdia 23 eta 21 mailatan dago; nahiz eta gizon gehixeago diren 23 mailan daudenak eta, alderantziz, emakume gehixeago diren 21 mailan daudenak. Bestetik, emakume gehiago pilatzen dira mailarik baxuenetan: 18 mailatik behera daude emakumeen %

18,5 eta gizonen % 13,9. Eta gizon gehiago pilatzen dira mailarik altuenetan: 25 mailatik gora daude emakumeen % 8,38 eta gizonen % 13,98.

Euskara teknikarien soslaiari erreparatuta, horrela laburbil dezakegu:

- ✓ Euskara teknikarien ia **bi heren emakumeak** dira, eta heren bat pasatxo gizonak. Antzinatasunari dagokionez, euskara teknikariek **15 urteko antzinatasuna** dute, batez beste; eta **administrazioan 18-20 urte ingurukoa. Ez dago alde nabarmenik sexua-generoaren arabera.**
- ✓ Adinari dagokionez, 46-55 urte eta 56 urtetik gorakoen adin-multzoan daude gehienak (% 72,7k) eta **batez besteko adina 50 urtekoa da emakume nahiz gizonen kasuan.**
- ✓ Halere, badaude ezberdintasunak emakume eta gizonen artean, adinari dagokionez. **Emakume gehienak 46-55 urte bitarteko adin-multzoan daude eta gizon gehienak, berriz, 56 urtetik gorako adin-multzoan.**

Feminizazio-mailarik handiena 46-55 adin-tartean dago; eta 56 urtetik gorakoen artean ere euskara teknikarien feminizazio-maila esanguratsua da. Duela urte batzuk euskara teknikarien feminizazio nabarmena gertatu zela dirudi. Kopuruak parekoagoak dira 45 urtetik beherakoen artean. **Interesgarria izan liteke errealitatea hobeto ulertzeko euskara teknikari hauek ofiziora sartu ziren garaia aztertzea: noiz hasi ziren, zergatik eta nola, zer faktorek izan zuten zeresana, zein ibilbide egin zuten euskara teknikari izatera iritsi aurretik, zer prestakuntza jaso zuten, nondik eskuratu zituzten ofiziorako ezagutzak...**

Era berean, datuek erakusten dute jadanik euskara teknikarien artean sumatzen dena: **euskara teknikari asko erretiro-adinetik gertu daude (% 36k 56 urtetik gora dute).** Nahiko kolektibo heldua da euskara teknikariena eta belaunaldi gazteen proportzioa oso apala da (laurden bat dira 45 urtetik behera dituztenak). Belaunaldi-aldaketa erronka garrantzitsu bat izango da.

Hasieran esan dugun bezala, azterketa hau datu kuantitabioetan oinarritu da eta horrek baditu muga batzuk. Interesgarria izan daiteke datuok erakutsi dizkiguten **korapilo batzuetan arakatzeko bestelako azterlanak abiatzea**, kualitatiboak, neurri handi batean. Azterlanean zehar interesgarri jo ditugun sakontzeko eremuak aipatzen joan gara orain arte, baina, aipatutakoez gain, beste eremu hauetan ere arakatzeko aukera ikusi dugu, hala nola:

- ✓ Euskara-zerbitzuetan **segregazio horizontala**. Lan-moten eta lanpostu-moten arabera nola banatzen dira emakumeak eta gizonak euskara-zerbitzuetan? Teknikariak, itzultzaileak, administratzaileak... (datuok jada azterlan honetarako bildu ditugu eta, behar izanez gero, badaude)
- ✓ Euskara teknikarien **erreferentzialtasuna eta aitortutako autoritatea**. Datuek erakutsi digute emakumeak nagusi diren eremua dela euskara teknikariena, baina hau bat al dator eremu honetan erreferentzialak diren lagunen soslaiekin? Nori aitortzen zaio autoritatea eta nori ez?
- ✓ **Zer esaten digute datuok euskararen biziberritzearen inguruan?** Zer esaten digute euskararen estatusa eta boterearen (edo botere ezaren) inguruan? Zer esanahi ematen dizkiogu euskarari eta horrek nola interpelatzen du genero bat edo bestea? Zer esan nahi du euskarak euskara teknikari lanetan ari diren emakume eta gizonentzat?
- ✓ **Zergatik feminizazio-maila hau?** Zer adierazten digu? Non eta nola daude gizonak eta emakumeak, eta zer esaten digu horrek? Euskararen biziberritzea emakumeen ardura gisa ikusten al da? Presentziak, absentziak eta zergatiak.

- ✓ Euskara teknikarien **feminizazio-prozesuak zer inplikazio ditu bere lanean?** Feminizazio-prozesuak ba al du inplikazio baikorrik? Aliantza berriak egiteko aukerak sortzen ari ote dira?
- ✓ **Euskara-zerbitzuen arkitektura.** Azterketa honetarako bildu ditugun datuek beste azterketa hau egiteko aukera ematen digute. Interesgarria litzateke aztertzea zer nolako arkitektura eraiki den Araba, Bizkai eta Gipuzkoan euskara biziberritzeko politika publikoak bultzatzeko. Euskara-zerbitzuen presentzia (zein erakunde publikotan existitzen diren eta zeinetan ez), euskara-zerbitzuen izaera eta kokapena (baduten sail propiorik, saila euskararena den soilik edo beste alor batekin partekatua, edo beste arlo baten mendean dagoen), euskara-zerbitzuen osaera eta sendotasuna (tamaina, lanpostu-kopurua eta funtzioak, egonkortasuna, langileen antzinasuna...).